

**Telesforo Monzon**

**ENEKO BIZKAI  
ETA MARIA LORKA**

Hiru zatitan

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.armiarma.com/monzon/antz04.htm>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=306>

# **NORTZUEK ZER**

**GAZETA SALTZAILEA:** Paris-dar bat.

**ENERO BIZKAI:** Jakintsun asmatzaile erroa. 26 urte.

**MARTA:** Eneko-ren izeba, 55 urte.

**MARIA LORKA:** Olerkaria. 22 urte.

**GANTZARAIN-GO ERRETORA:** 55 urte.

**MONTEFLORIDO:** Espainiako Anbasadorea.

**MARTXIAL ARRATIBEL:** Bide-egile. 60 urte.

**JOXE MARI:** Paris-en bizi euskaldun zahar arlote bat.

**XANPIER:** Baxenapar mutiko bat. Paris-en bizi.

**GAZTE BAT:** 26 urte. Nor den... Gero ikusiko.

**MONSIEUR ROBERT:** Paris-dar langile bat.

Bozak, arrabotsak, muxika eta bertze...

Ekintza Paris-en, 1970-garren urtean.

# AINTZIN SOLAS

Jaun andereak:

Komedi hau amets bat da. Gau zahar batez, aize-egoak egileari egin arazitako ametsa.

Gure gaizo egileak, amets hori zuen egitzat hartu. Eta goizean goizik esnatzean, paperean ezarri zuen, ahantziko zitzaion beldur. Horra nola sortua den antzerki hau!

Errana diogu egileari: Euskal Herriak ez duela ameslari beharrik. Harek, aldiz, hola dio: Amets egin gabe dagozen Herriek ez dutela salbamendurik.

Zuek jujatuko, jaun andereak. Eta komedi huntan sobera errokeri eta bitxikeri atxematen badituzute, pentsa Aize Egoak ekarriak direla. Hola aixeago barkatuko gaituzute. Aize Egoa etxeko alaba baita eta etxeko alaban behar bai zaio barkatu zer nahi!

# LEHEN ZATIA

*Pariseko ikasle baten ganbera xinplea.  
Ogea, mahaina, liburutegi bat, jarleku  
batzu... eta pianoa.*

*Mahainaren gainean, paper eta liburuak  
nahas mahas. Telefona eta kafe-ontzia  
ere bere katiloarekin. Zigarreta buztanak  
nunahi.*

*Buruz buru atea eta leihoa. Leihotik  
Paris-ko teilatuak ageri. Ezker aldean ere  
ateska bat: sukalderakoa.*

*Goizeko zortziak dire. Udaberria...  
Mahainaren gibelean -ileak nahas,  
begiak gorri, eskuan luma- Eneko Bizkai  
lanean ari. Ez du lorik egin gau osoan.  
Ogera ere ibili gabe dago. Kanpotik  
heldu bitez oihuak: «Les Nouvelles de  
Paris» édition du matin! Achetez «Les  
Nouvelles de Paris»! Dernière édition!  
Avec les dernières nouvelles! Sensation-  
nelles découvertes du jeune savant bas-  
que! Achetez...*

# I. AGERRALDIA

*Eneko eta Gazetaria*

**GAZETARIA:** Tiens! Voilà ton journal. Mon p'tit! Tu liras ton nom, comme toujours, á la première page! Il commence á devenir éminent notre p'tit savant basque, h? (*Ogeari begira.*) Hooo! Gai-xoa! Gaur ere... zuk... ez lo? Hori ona... laister... «singlatzeko»! Nik jakin euskeraz, pittat... Udan, Donibane'n nik saldu «Nouvelles de Paris». Gero, neguan, ni hemen, Paris-en. Zuk ez maite Paris? Zu beti... séparatiste! Hooo... après tout tu as bien raison mon vieux! C'est ce que je dis á ma blonde, moi quand je pars pour Saint-Jean-de-Luz: «Ne pleure pas, ma p'tite! Dans la vie pour bien vouloir s'unir, il faut avoir été séparé... Zuk ez nahi mintza frantxes...! Beti euskeraz! Eta beti ikas! Des numéros... Zuk laister gu ereman... á Vénus! Behazu hemen (*Egun-karia zabaltzen du: «Sensationnelles découvrir-*

tes du jeune savant basque. Eneko Bizkai se refuse á toute déclaration. «Je ne parlerai qu'en basque», nous dit-il.) C'est bien ça! Ça facilite les choses, quoi! Neri ere: pas de déclaration? Beti ixil? Bon! Ago hola-hola! Tu vois? En Espagne on dirait *olé olé*! Mais nous les Basques, on dit *hola hola*! Parce qu'en est une nation différente, nous! Bon! Segi hol-hola... avec les numéros... Nola erraiten Vénus en basque? Oh je sais bien, tu as la célébrité, toi! Tu vas bientôt visiter les étoiles! Mais on t'envie pas, eh! On aime mieux courir les filies icibas que d'aller faire le pantin lá? Pas mal, eh! Je lui al fait comme á Saint-Jean-de-Luz «Adi gaixoa!» Pas de réponse non plus!... Des numéros! Eh bien, mon p'tit, pour des numéros... nous on n'en fait pas matis... on en connait, eh!! (*Eta badoa oihuka*): «Les Nouvelles de Paris», édition du matin!... Achetez...

## II. AGERRALDIA

*Eneko eta Marta*

**MARTA:** *(Gozariarekin heldu, ogeari begira gelditu da).*

Aitaren eta Semearen! Gaur ere ez haiz ogean sartu? Lo egin gabe ago gaur ere? Laugarren gaua duk hola, Eneko. Eta osagileak garbiki erran: hola segitzekotan...

**ENEKO:** Zer?

**MARTA:** Burutik nahasiko haizela arras, edo hilen. Orai hik hauta. Utzi itzak numero tzar hoiek bere gisa, iloba, eta sar adi ogean. Jesus! Kafe-ontzia ustua duk gau osoan deus jan gabe! Tira zak. Hemen duk gozaria. Ogia gorritua diat, maite dukan bezela. Jan zak beroa delarik. Eta sar adi ogean gero. Leihoak etxiko dizkiat nik. Tira, mogi adi.

**ENEKO:** Bakarrik egon nahi dut. Munduaren geroa ibilki dut eskutan.

**MARTA:** Munduaren geroa? Errak: zer egin behar dik gure Jainko maiteak, hik hartzen baduk orai haren plaza? Eneko! Ator berriz pulliki hire baitarat. Biok bakarrik gaituk munduan. Aitarik ez



duk, amarik ere ez. Ni nauk hemen: Hire aita zenaren arreba bakarra, mutxurdina. Gauza handirik ez nauk baina... hoberik ez zaik munduan gelditzen eta... emanatik bizitzen ikasi beharko duk hik ere, bertzeek bezela. Gernikatik segitu nian Gantzarain-erat, suari igesi amak sabelean Baxenaparra-rat ekarri hinduela. Gantzarain-etik ere, legundu hinduen Paris-erat. Eta... ez zekiat batere ongi gaizki egin nian, horra.

**ENEKO:** Nik bakardadea behar dut, eta ixiltasuna.

**MARTA:** Ezker-gaitza duk hik merkeegi saltzen, haurra. Jakin izan banian...

**ENEKO:** Behazu, izeba. Ahantxu dut. Ez dut oraino arras atxemana baina, bidean naiz nik uste. Beha-zu (*Papera erakusten dio*).

**MARTA:** Zer dituk zirrimarra zarapartari hauek? Izarretarainoko bideak? Iduripena ta fantasiaz baino, behartuagoak gindazke gu orai ere... sosaz, Eneko. Esneketaria asia zaik kexatzen. Atzo ere...

**ENEKO:** Ez zaidazula neri otoi, izeba, sosik aipa! Eta utzi zaidazu amets egiten.

**MARTA:** Ze ba! Ametsez gizenduko gaituk urrik! Eta ametsik ez bada ere, arrokeria beti hor izanen baita... (*Marta gela txukuntzen ari dela, telefonak deituko du*) Har zak telefona. Ni ahalgetzen bai nauk.

**ENEKO:** Nor da? Nor? Nor den, bai nor den? Edo, Paris-en ez dut euskeraz mintzatzeko eskubiderik? Ni naiz bai, ni: Eneko Bizkai, odolez bizkaitarra, sortxez baxenaparra. Gantzarain-en bataiatua eta eskolan! Zergatik ez ninduzuten utzi, Gantzarain-go mendietan ni ere, ene ardiekin bakean? Nor zaitut zu? Zer behar nauzu? Mintza zite!

**MARTA:** Jainko maitea! (*Ixilka*) Ari adi eztixeago, Eneko. Denekin xamurtuko bai gaituk. (*Bere baitan*) Preso altxatzen ez bagaituzte gu, azkenean!

**ENEKO:** Zer? Erdaraz egiteko? Nik? (*Irriz lotzen da*) Askiz duzu zehaurrek euskeraz egitea. Beingoiz, ni bai naiz hemen nagusi. Eta zuek ene moneko, ene mutil, ene serbitzari... Zer? Nor? Nor zerala? Hooo! Monsieur le Ministre de la recherche scientifique! Eta bon... hemen Eneko Bizkai, Prix Nobel 1970. Enekin hitzegin nahi duenak,

aski du euskeraz ikastea. Nahikoa trufatu zaite denak ene Herriaz. Orai, nere beharra bai duzute, beharko diozute errespetua ekarri. Barkatu jauna. Lanpetua naiz. Ondoko egunak arte...!

**MARTA:** Bon! Enekin segitzekotan, nahikoa. Entzunduk? Bertzela, aski duk emaztea hartzea. Edo neskatoa. Nik ez diat erroak zaintzen ibiltzeko gutziazirik. Frantzia-ko ministru bati hitzegin araziko diok hik euskeraz? Nun duk hik errespetua?

**ENEKO:** Zergatik ez? Berek ez ahal digute guri, orai arte, nahiko hitzegin arazi erderaz? Nun zuten errespetua berek?

**MARTA:** Izarrak ukitu behar ditukala! Eta «Zazpirak bat» egin. Gaizoa! Biak bat ezin diagu egin eta, zazpirak bat eginen dituk hik, aixe! Bon! Behar duk jan, bai ala ez? Behar duk ala ez duk lo egin behar?

**ENEKO:** Nahiago dut, izeba... pianoa jo!

**MARTA:** Ze ba! Merkeena hori duk!: tripa utsik, soinu egiten ibiltzea.

*(Eta badoa. Eneko emanen da pianoan.  
Hartan ari delarik, Eneko-k ikusi gabe,  
sartuko Maria Lorka.)*

### III. AGERRALDIA

*Eneko eta Maria*

**ENEKO:** *(Golpez ohartuz)* Zer? Zu hemen?

**MARIA:** Ez nauzu ikusi ere sartzen.

**ENEKO:** Maria! Jakinen bazenu, artzain-mutil hunek zure ikustiaz hartzen duen poza! *(Papera erakusten dio)* Behazu, Maria! Ahantxu dut, nik uste.

**MARIA:** Zergatik erakusten dauzkidazu neri numero hauek, Eneko?

**ENEKO:** Egia. Zuk ez dakizu numerotan. Beharrik! Zu goragotik ibilki zare, Maria. Zu olerkaria zera. Paris-ek egun duen poetarik haundiena, beharbada: Maria Lorka!

**MARIA:** Ene eskolan ere ez da zutaz bertzerik mintzatzeko. Denek agoan zaitue. Zuk atxeman duzun indar berri horrek ereman behar omen gaitu laister izarretarat. Munduaren geroari ere, bertze itxura bat ekarriko omen diozu zuk. Eta pen-

tsa: denek neri goresmenak emaiten. Errana diotet: Zergatik neri goresmenak?

**ENKO:** Zergatik? Nere adiskiderik oberena zu bai zera, Maria. Eta numeroak egiten ere, zure poesiaz ez bai nauzu gutxi lagundua.

**MARIA:** Hori bai naiz ni zuretako... Adiskide on bat!

**ENKO:** Ez da gutti, Maria.

**MARIA:** Enezat ez aski ere, Eneko.

**ENKO:** Munduko bozkario eta atsegin haundienetarik batto, adiskidantza duzu, Maria.

**MARIA:** Badituzu ederragoak ere, Eneko.

**ENKO:** Nik ez ezagutzen.

**MARIA:** Nik bai. Eta obe ezagutuko ez banitu.

**ENKO:** Amodioa?

**MARIA:** Eneko! Ez zaitut gehiago ikusi nahi. Sobera sufritzen dut.

**ENKO:** Baina... maite banauzu, behar zindake nere ikusteaz alegeratu!

**MARIA:** Egarrituak ere maite dizu iturria. Zertako iturriari begira egon, edaterik ez baduzu?

**ENKO:** Nola? Olerkari batek erraiten hori? Zu bezalako poeta batek? Iturriak badaki gogoia freskatzeko ere, Maria. Ez gorputza bakarrik.

**MARIA:** Eneko! Nik ez zaitut olerkari gisa maite. Ene baitan, ez zaitu poetak bakarrik maite. Emaztekiak ere maite zaitu.

**ENEKO:** Nik aldiz, ditudanak oro emanen nizkizuke, Maria. Oro! Bainan amodioa nola emanen, eza gutzen ez bai dut!

**MARIA:** Munduan utzi litazken denak utziak ditut zuregatik: Nere Espainia, etxea, burasoak, lagunak, besotan ibiltzen nuen nere anai gazteena ere. Bada hiru urte ez naizela Andaluzia-rat itzuli. Lirainja usain hura ere ahantxu ahantzia dut. Ez nauzu, hiru urte hauetan, zaldi gainean zezenen ondotik ibili. Karmen, etxeko sehi zaharrenak, idazten dit tarteka eta gordezka. Bertze nihork ez. Jakin duzu, gure aita izan berria dela hemen, Paris-en?

**ENEKO:** Ez nizun erran nahi baina, jakin dut bai.

**MARIA:** Ez dit dei egin ere. Ene burasoentzat hila naiz.

**ENEKO:** Heientzat, debrua bai naiz ni! Eta zu beraz, Maria, Paris-en debruarekin ibilki.

**MARIA:** Oroitzen zera, Eneko, orai hiru urte, Louvre-ko Museoan, nola ezagutu genuen elgar lehen aldiz? Biak ikasterat etorriak ginen Paris-erat. Ni Andaluzia-tik, zu Baxenaparratik... Ez da gauza

bera! Ikusi ordu maitatu zindudan. Eta geroztik ez nauzu bizi izan zuretako baizik. Zu norat, ni harat. Zuk zer behar, nik hura nahi. Zuk zer pentsa, nik hura sinets. Ene Aberriari uko egin nion, zurea hartzeagatik. Udan, Gantzarain-erat lagundu zaitut, hiru urtez. Eta egun, euskera duzu nere mintzaira ere. Ene pertsuak euskeraz egiten ditut. Eta ahagatik... Federico Garcia Lorca zenaren hiloba bat, Guadalquivir ibaiaren egian sortua den neskatxa, uste duzu sekulan egiazko euskeldun alaba bat izan litakenik? Paris-en, zure lagunak dire nereak ere. Bertzela, bakarrik naiz. Zer nindake beraz ni gaur munduan zu gabe? Ardi galdu bat, besterik ez.

**ENEKO:** Zer zindaken? Zer zeran? Euskal-Herriak sekulan ukan duen olerkaririk haundiena, Maria, denek diotenez. Har zazu gogoan: Grezia ez zutela bertako seme alabek bakarrik egin. *(Pausa)* Zure liburu berri hori, Maria, zertan duzu?

**MARIA:** Gaur bururatua dizut. Ez da goizegi. Egunaz lan, gauaz amets, aspaldi huntan ez bai dut, nik ere, lo aunitz eginik. Horra. *(Eskuan ekarria duen kaierra ematen dio).*

**ENEKO:** (*Lorietan irakurtuz*) «Gantzarain eta ni. Maria Lorka-ren poema berriak.» Nork argitarazi behar dauzkitzu?

**MARIA:** Hartaz ez nauzu kexu. Paris-ko inprimatzaile haundienak ene ondotik ditut. Bakarrik...

**ENEKO:** Zer?

**MARIA:** Denek gauza bera galdetzen...

**ENEKO:** Zer?

**MARIA:** Hunen ondoko liburua, bederen, erderaz egin ararzi nahi didate.

**ENEKO:** Eta zuk zer erantzun?

**MARIA:** Ez dakit ba...

**ENEKO:** Ez dakizu, beraz? Nik bai, badakit! Badakit zer ihardetsiko diezun: zure poesiari hatu nahiko dionak bere egiazko atsa, beharko duela eukeraz ikasi. Ala bertzela, itzulpenak irakur. Maria Lorka-k ezpaitu sekulan, entzun duzu? sekulan idatziko euskeraz baizik.

**MARIA:** (*Hilun*) Nor zaitut zu, neri hola manatzeko? Norenak dira pertsu hoiek, zureak ala nereak?

**ENEKO:** Eta zu zer zaitugu? Jakin dezagun beingoz: euskelduna ala arrotza? Gure lagun ala gure etsai? Mintza zaite garbiki!



**MARIA:** Nola? Zer...? Zer entzun dut...? Zuk neri, Eneko, hori galdetzen... (*Lotzen da ixilka negarrez*)

**ENEKO:** (*Haren oinetan belkaunikaturik*) Barka nazazu, Maria. Erroa naiz. Ez nauzu ene buruaren jabe. Aize zakar batek erabilki nau, ostoa bezela. Barka nazazu. ez nazazula utzi bakarrik.

**MARIA:** (*Haren burua ferekatuz*) Gaizo Eneko! Eta gaizo Maria! Zergatik ez gaituzu, jauna, bertzeak bezela egin gu ere!

**ENEKO:** Erroa naiz, Maria!

**MARIA:** Erroago nauzu ni, Eneko. Amodioak itxuturik, maite ez nauen gizon erro baten eskutan emana bai dut osorik, ene izaitea!

**ENEKO:** Aize egoak erabilki nau. Aize ego beltzak.

**MARIA:** Zu baino sei urtez gazteago nauzu, Eneko. Eta alare, ez dut zure baitan gizona bakarrik maite. Maite dut, eta nola, zaren haurra ere. Dena su! Dena amets! Dena emaitza! Zuk ez dituzu, nik bezela, bertsoak egiten. Alare, ni baino poeta haundiagoa zera zu mila aldiz! Mila aldiz, ba.. (*Telefonak jotzen du*)

**ENEKO:** Nor da?... Bai, hemen da... Emanen zaizu (*Maria-ri*) Zuretzat da, Maria.

**MARIA:** Nor da?... Ah, c'est vous, Monsieur de Chantal?

**ENEKO:** (*Berriz ere hilun*) Zergatik ez diozu egiten euskeraz?

**MARIA:** Otoi, Eneko! Utz nazazu enetik emaiten! Oui, oui, je vous apporte mon manuscrit ce matin, vous pouvez commencer à l'imprimer tout de suite... Por plus tard...? En espagnol ou en français? Oh non! Aucun espoir...! Maris Lorka n'ecris que dans sa langue, en basque...

**ENEKO:** Gora zu, Maria!

**MARIA:** Miguel de Unamuno avait écrit en espagnol...? Et bien, voyez-vous, Maria Lorka écrit aujourd'hui en basque... Cela est peut-être la vengeance d'un vieux peuple qui se sent suffisamment jeune pour faire des farces... Vous ne m'en voulez pas, Monsieur de Chantal? Merci! Je vous exprime toute mon amitié... A tout à l'heure...

**ENEKO:** Maria! Nola estimatuko nizuke nik...

**MARIA:** Estimatu? Izar berak argitzen gaitu, Eneko.

**ENEKO:** Begira zer hartu dutan egun!

**MARIA:** (*Irakurtuz*) «Euskal Herriko gazteak zuen baitan dute bere esperantza». Emazu soinutik!

**ENEKO:** Eta zuk irakur zazu zure poema bat!

**MARIA:** Zoin?

**ENEKO:** Edozoin! Lehena... «Gantzarain-go itzala»...  
*(Eneko emaiten da pianoan eta Maria erraiten. Hartan direla, sartuko jaun Erretora. Eneko ez da ohartuko ere)*

**MARIA:** «Gantzarain-go itzala, Goizean goizetik, hilerrian duzu bel beltzez jantzia... Noren alargun den ez nizuke esango, hilobi denetan baita ibilia... Gerezi ondoaren alaba omen duzu, eta lduzkiaren andregai izana... Noren alargun den ez nizuke esango, hilobi denetan ibilia baita...»

## IV. AGERRALDIA

*Eneko, Maria eta jaun Erretora. Gero  
Marta*

**JAUN ERRETORA:** *(Atetik sar eta kanpora begira)* Milesker, milesker Xanpier! Bai, bai, orai salbo nauk. Antolatuko nauk bakarrik! Beharrik arkitu haut, gaizoa! Zer egin behar nian nik, Parisko karriketan bakarrik! Etxerako nahi duk zerbait? Emanen ziozkatek, hire izenean, bigar bertan! Agur

Xanpier! Izan ontsa! Pesta berriko agertu haiz, usain bezela? Ederki, ederki! Agur, gaizoa! Pardon, Mademoiselle! Monsieur Bizkai, Eneko, c'est ici qu'il habite?

**MARIA:** Nola? Gantzarain-go jaun Erretorak ez nau gehiago ezagutzen?

**ERRETORA:** Hori! Maria! Maria Lorka! Zuk erran! Ez zinduen ezagutu ere! Gantzarain-en, udan, ez bai zera hola jantzita ibiltzen! Paris-erat heldua nauzu goizeko trenean. Geroztik errotua nauzu. Ez dakit nun ibilki naizen ere. Ba...! Zu hemen ikusirik, pentsatzen dut Eneko ez duzula urrun izanen. Eneko Bizkai... Gure gizon haundi hori, hemen nonbait bizi zaigu noski?

**MARIA:** Eneko? Pianoa jotzen duzu, jaun Erretora! Gantzarain-go organu pulit hura ez paitu hemen. Ez duzu ezagutu? Bera duzu! Urbil zait!

**ERRETORA:** Hori! Ez nuen piano soinurik aditzen ere. Arras errotua nauzu gaixoa, ene zangoak Paris huntan ezarri ditudan punttutik. Nola bizitzen ahal zaizte zuek hemen? Zaude. Puska zahar hauek behar nizekizuke nunbaiten ezarri.

**MARIA:** Pausatuko dizkizut nik, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Tira ba. Arras errotua nauzu, arras. Gozaria egina dizut bidean. Bazkaria eta afaria hemen-txet ezarriak dizkirate. Utz-azu hau hantxet. Edo ez, hortxet, hortxet. Eta emazu hura hor. Hola, hola. Hemen ezarriak bai dizkirate, nik uste, mukanexak ere. Arras izerditua naiz. Behazu... Jesus! Heldu gera noizpaiten! Ezin sinetsia dut. Ezpaita goizegi, gaizoa. Bego! Urbilduko natzaio puliki. Behar baidugu ikusiko mutiko tzar horrek, ni ikusteaz, ze jautsiak egi-ten dituen (*Puliki puliki, pianoari urbilduz*) lupi!

**ENEKO:** (*Erretoraz ohartuz*) Zer? Nor? Nun? Zer zera? Nun nago?

**ERRETORA:** Zaude deskantsuan, mutikoa! Aski nahasia nauk ni ere!

**ENEKO:** Zer? Gure herriko jaun Erretora Paris-en? Zer da? Munduaren akabantza?

**ERRETORA:** Ez, ez. Hik emanen diok nik baino aixeago munduari akabantza. Hire asmakizun eta debrukeriekin...

**ENEKO:** Zer galdu zaizu zuri Paris-en, jaun Erretora? Telebistan pasatzerat etorria zare?

**ERRETORA:** Ago trankil! Ez nauk berriz aixe jinen. Hire-kin mintzatzerat etorria nauk doi-doia. Eta ez luzaroko. Hori! Nun utzia diat nik ene paisola?

**ENEKO:** Gure Mattantta ikusia duzu, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Ez zekiat mutikoa, ikusi diatan ere. Ago. Trenetik jaustean, ezkerreko basoan hartuak nizkian puskak. Paisola beraz...

**ENEKO:** (*Sukaldeko atetik*) Izeba! Behazu pittat nor duzun hemen!

**ERRETORA:** Badut belarrietan ikara bat! Zerk egiten hori? Hemengo arrabotsak, nik uste?.

**MARTA:** Aitaren eta Semearen! Zer ari zera zu Paris-en, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Horra bertzea! Bego. Itzultzeko orenak behar dizkiat ikusi lehen lehenik. Zarpan diat papera, nik uste.

**MARIA:** Zer? Gaur bertan itzuli?

**MARTA:** Zaude hemen gurekin zonbeit egun, deskan-tsuan!

**ERRETORA:** Ez andrea. Larraldia-ko mutxurdi zaharra gorputz utzia etorria nauzute ta, bigar dugu haren enderramendua. Zuen ikusteaz kontent naiz baina, Paris huntan badut tristura bat! Mihia idortua zait arras. Zerk egiten du hori?

Hemengo errauts hunek, nik uste? (*Papera mia-tuz*) Bego! Gare d'Austerlitz 21 h. 45. Beraz, trankil ibiltzeko, Eneko, ttaka ttaka, seirak aldean, freskuran, aterako gaituk etxetik.

**ENEKO:** Zaude ixilik, jaun Erretora! Hiru oren hemendik...

**MARIA:** Galdua ibili bai zera zu, goizean, jaun Erretora.

**MARTA:** Nun eta nola ibili ote zaigu hau...

**ERRETORA:** Plaza animalari batean, ez dakit ze plaza eren zen, bi besoak kargaturik, norat jo ez nekiela, golpez rau!!! goiko ostatuko semea, Xanpier, ez zait ba begien aintzinean agertu? Gaizoa! Hura ikusi eta, begiak bete zaizkit nigarrez! A ze bi muxu eman diozkatan! Gaizoa! Harek ekarria nau gero hunat. Bertzela...

**MARTA:** Paris gauza ederra duzu, jaun Erretora. Behazu pittat lehoi huntarik...

**ERRETORA:** Ez, ez, ez, ez, ez... Lehen ere badut aski ikusia. Nahiago dizuet hiluntzia arte, hementxet, zuekin, etxe barnean egon. Ekatzu zigarreta bat, Eneko. Behar diagu pipatu. Zuen konpainian asia bai naiz loriatzen.

**MARTA:** Jesus! Paris-i holako beldurra! (*Enekogatik*)

Hau ere hola bizi zaigu: bere Gantzarain-ekin ametsetan!

**MARIA:** Ene gau guzietariko ametsa, hura dut nik ere, jaun Erretora: Gantzarain-go eliza, hilerria...

**MARTA:** Ametsak ongi pagatuak balire, aspaldi aberas-tuak bai gindazke gu etxe huntan, jaun Erreto-ra! Hemengo gora-beharak bazekizkizu! (*Badoa sukalderat*)

**MARIA:** Marta-k iges egin digu eta nik ere utzi beharko zaituztet. Bertzela...

**ERRETORA:** Zaude deskantsuan, Maria. Nik huni erran beharrak entzuten ahal dituzu zuk ere.

**MARIA:** Deskantsuan? Hitz eder hori Gantzarainko hau-rra duzu, jaun Erretora. Paris-en ez da deskan-tsurik.

**ERRETORA:** Bistan da! Zuek, gainera, jende haundiak bai zaizte orai! Eneko Bizkai!!! Nork erran behar neri, ardiak mendian utzirik kauximara jiten zitzaidan mutiko tzar hura... Zu, Maria, ez zindu-dan haur denboran ezagutu. Baina gogoan dut, uda batez, Eneko-rekin, lehen aldiz Gantzarain-en nola agertu zinen. Gero, goiz guziz, hilerriko gerezi-ondoaren itzal-azpi hartan jarririk, per-



tsuak egiten ikusten zindudan, mendieri begira... Ez nizon agurrik egiten ere! Ametsetan ari den olerkari bat esnatzea, pekatua dela erran ahal daiteke? Nork erran behar, neskatxa gazte ixil, uzkur hura egungo Maria Lorka bilakatu behar zenik!

**MARTA:** *(Sukaldeko atetik)* Kafe pittat aterako bereala, jaun Erretora. Zato zu ere gero, Maria. Gurekin bazkalduko zera. Horrek bezin bat numero egiten ibili izan gabe, ikasia bai naiz ni hemen, jaun Erretora, bi lukainkaz lau eta bortz egiten ere...

**ERRETORA:** Hori! Zaude, Marta. Udaberria heldua baita Gantzarain-erat ere, hor nunbait ezarriak dauzkidate, zuentzat, gure baratzeko lusagar berri hoietarik zonbait. Gantzarain-go lurrari gustoa hartzeko doi-doia...

**ENEKO:** Gantzarain-go lurraren gustoa!

**ERRETORA:** Zaude. Nun ditut nik... Hemen, hemen.

**MARIA:** Gantzarain-go lurra egin ninduen olerkari, jaun Erretora!

**ENEKO:** Egosi itzazu hol-hola, izeba, lurra kendu gabe!

**MARTA:** Ze ba! Parisko biftekak ezpaitigu on egiten, Gantzarain-go lurra asetuko gaitu aixe!  
*(Badoa.)*

**MARIA:** Gantzarain-go hilerri hura! Ez dut munduan toki alegeragorik ezagutu!

**ERRETORA:** Hartaz mintzatzerat etorria nauzue te ba...

**MARIA:** Gantzarain-go hilerriaz?

**ERRETORA:** Hilerriaz, plazaz, elizaz... Ba dut tristura bat, haurrak, ba dut tristura bat!

**ENKO:** Ze duzu, jaun Erretora? Mintza zaite garbiki!

**ERRETORA:** Ez, ez. Ba dugu astia, gero ere. Mementu goxo hauek luzatu itzagun ahal bezin bat. Errazute eta... zuen artean... lehen bezela segitzen duzute...? Ez zaldi eta ez asto...?

**MARIA:** Erraiozu Eneko-ri, jaun Erretora.

**ENKO:** Adiskidetasuna baino gauza ederragorik ba ote?

**ERRETORA:** Adiskidetasuna? Zer uste duk? Zorgiñetan sinesten diatala nik, orai ere?

**ENKO:** (*Kexu*) Gantzarain-go errekak lehen bezin garbiak dituzu orai ere, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Obe, segurki. Ahagatik... behar zizkitek noizpaiten amorrainak ematen asi ere! Gantzarain-go eliza zueri begira dago. Baina... mugitzen ahal zaitze gazteak. Ez bai dakit noiz arte...

**MARIA:** Zer? Gantzarain-go eliza...?

**ENKO:** Mintza zaite, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Gero, gero! Holako berriak berantago eta obe. Baina ba dut barnean idor bat, haurrak, idor bat! Zuek egin, zuen eginbeharrak. Nik otoitzak egiteko ditut. Mintzatuko gaituzute gero, luzaz. Ekazkiatuzte bosteko hoiek! Gaixoak! Gaixoak! Zuen eskuen beroa senditzen bai diat orai, ez zait iduritzen Paris-en nagoenik ere! Zoazte, zoazte gustian. Otoitzak egiteko ditut eta...

**MARIA:** Agindu bezela, nere liburu-gaia ereman beharra dut. Lagunduko nauzu, Eneko?

**ENEKO:** Ez litake neretzat ohore haundiagorik, Maria!

**ERRETORA:** Kasu aintzineko atetik ateratzeari! Paris-ko gazetari guziak hor bai dituzute beha, noiz arrapatuko zaituzten! Hola bizitzea ere!

**ENEKO:** Ez luzaz, jaun Erretora! Deliberatua bai naiz: Gantzarain-erat noakizu bizitzerat betikotz...

**ERRETORA:** Eta zer uste duk? Behereko zakur amorratu hoiek Gantzarain-en bakean utziko hautela? Hi harat urbiltzen ba haiz, akabo Gantzarain-go bakea. Ba! Bertzela ere...

**ENEKO:** Zer duzu? Mintza zait! Zertarat etorria zarezu, Paris-erat? Zer dakartzu kolkoan?

**ERRETORA:** Oilarra! Eta harek ez bai zekik bortxaz kantatzen, entzun duk, kantatuko dik bere tenorean! Baina... Gantzarain-go lusagar berri hoiak bederen, haurrak, jan itzagun goxoki elgarren konpañian. Tira, zoazte. Mintzatuko gaituzute, gero. Zoazte...

**ENKO:** Nahi duzun bezela, jaun Erretora, baina kexu naiz. Iñaki Bizkai usaitua bai duzu, aspalditik, Gantzarain-go jaun Erretoraren begietan zer nahi irakurtzen. *(Telefonak joko du)*

**ENKO:** Jo, jo! Ez barka, zuek ere! Balia zaitezte! Ez bainauzute luzaz zuen atzaparretan atxikiko!!!

## V. AGERRALDIA

### *Lehengoak*

**ENKO:** *(Telefonaz)* Nor da ...? Nor ...? Hooo... Mister Hamilton! Erran, adiskide, erran, so nauzu...

**ERRETORA:** *(Mariari)* Nor du?

**MARIA:** Amerika-ko Anbasadorea!

**ERRETORA:** Zer? Eta... horri ere... euskeraz egiten dio?  
(*Lotzen da irriz*)

**ENKO:** Bai, bai, ingelesez ba dakit bai Baina... erran, erran zuk euskeraz, izigarri pulliki egiten bai duzu!

**MARIA:** (*Hilun*) Beldur naiz errotzat hartuko gaituen, jaun Erretora. Errotzat edo...

**ERRETORA:** (*Irriari ezin atxikiz*) Gantzarain-go artzain mutil batek... Amerikako Anbasadoreari... euskeraz egin arazten!

**ENKO:** Hola, hola! aterako zaizu pulliki, pulliki...

**ERRETORA:** Eta egin beharko! Hunek ezpaitio barkatzen. (*Irriz leher*)

**MARIA:** (*Hilun*) Eneko-ren beharrez kausitzen bai dire gaur denak, jaun Erretora. Baina beldur naiz egunen batez...

**ENKO:** Nola? Ikasten asia zerala serioski? Nik uste! Ageri duzu! Hola, hola, Mister Hamilton, hola... Rusia-ko Anbasadorea ere, abiatua zaizu gero euskeraz izigarri pulliki... Entzungo bazenu... Rusia-koa bai, zer ba...!

**ERRETORA:** Egia al da? (*Irriz lehertzen*)

**MARIA:** Egia da bai, jaun Erretora. Bainan beldur naiz. Hoiek ez bai gaitue gero aixe barkatuko!

**ENEKO:** Alare... Paris-en gaur euskeraz aintzineratue-na... Txinakoa dugu, nik uste... Ze ba! Txina-ko Anbasadorea bai... Mao-tse-iu-mi O-no-lu-lu-, berbera! Ikusiko bazenu, Oxobi zenaren Alegiak zoin pulliki erraiten dituen!

**ERRETORA:** Txinakoa ere bai?

**MARIA:** Zuk irri egiten, jaun Erretora, baina nik ez. Emaztekiek usma bai dugu. Eta beldur naiz egungo irri hauek ez diren laister nigar bilakatu-ko,

**ENEKO:** Jakin duzu?... Kuba-koek ere ekarria dutela interpreta, nerekin euskeraz mintzatzeko...? Zuek ere ba duzutela? Noiztik? Hola, hola... Erraiozu, otoi, ezarri dadien... beharba ezagutu-ko bai dugu... Milesker, Anbasadore jauna...

**MARIA:** Eneko, otoi! Mundu osoak behar zaitu gaur, ba dakit. Eta eskuak mihikatuko dauzkitzue, arpe-gian jotzen ba dituzu ere. Baina kasu! Ezurra ebatsiko bai dizue, ahal badute. Eta orduan begietarat jautsiko!

**ENEKO:** Bai, ni naiz, ni... Nor zaitut zu?... Interpreta berria ba dakit baina, nungoa zeran...? Landi-bar-ko?

**ERRETORA:** Hori!!

**ENEKO:** Landibar-en... zein etxekoa haiz hi?... Iduzki-tza-ko Anddes?

**ERRETORA:** Hori! Ene iloba! Gure Kattalin arrebaren seme zaharrena! Anddes!! Nola ekarri dute hori hunat? (*Eneko-ri*) Erraiok hemen nagokala!

**ENEKO:** Baina... hi ez egoen ba Ameriketari artzain? Handik ekarria haute, beraz...?

**ERRETORA:** Erraiok hemen nagokala!

**ENEKO:** Eta... ardiak nun utziak dituk, mutikoa? Anbasadako baratzean alaitzen? Ago, ago... Bertze norbeit urbiduko bai zaik orai...

**ERRETORA:** (*Telefona harturik*) Errak! Ezagutzen nauk? Gantzarain-go Erretora... Ça te dis quelque chose...? Errak! Nun utzi duk anaia...? Errak berriz, ahantziko bai diat nik... (*Eneko-ri*) Marka zak: «A Washington... interpréte la langue basque auprès du Pentagone...» Ez diat geiago deusik konprenitzen, mutikoa. Errotuko nauzute zuek, denen artean. Ez! Ez! ni joaki nauk gaur gauean, berriz. Errak! Pesta-Berriko helduko haiz etxerat? Bon! Amak ez dik nigar eginen! Ago untsa! (*Telefona pasatzen dio Eneko-ri*) Je ne comprends plus rien, moi, rien! Gure Kattalin-en seme tzar hoiek... sortzetik ardi-jesten

usaituak... batto Paris-ko Anbasadan... Bertzea, Washington-eko Pantagonian... Hori gertatzeko, ba da munduan zerbeit mogimendu berri, nik uste!

**ENEKO:** ...Hire nagusiari zer erran? Hor da bera? Erraiok, beraz... Gantzarain-en sortu izanagatik, Gernika-ko harrien azpian utziak dizkiatala, nik ere, aita eta hiru anai!... Libertatea eder dela, Herri ttipientzat ere... Eta munduko gidariak izan nahi dutenek, otsoak gizentzen ibiltzea baino, obe luketela ardiak zaintzen ikasi! Horrekin badik aski gaurkoz. Agur Anddes. Ondoko egunak arte (*Telefona utzi eta*): Zer? Zer dut? Zergatik begiratzen nauzute hola? Erran! Erroa naizelako? Ni erroa banaiz, egungo euskeldunek erroak behar dute izan, erroak ez izaiteko! Goazen! (*Maria-rengana itzuliz*) Poesia aintzinetik...!! (*Gazteak badoazi, Erretora, ixilik, otoi-tzean lotuko*).



## VI. AGERRALDIA

### *Erretora eta Marta*

**MARTA:** (*Gosariarekin heldu*) Zuk ekarritako lusagar berri hoiek, jaun Erretora, barkatu erraitea: ez dire batere lehengoak. Azala zakarragoa dute aixe.

**ERRETORA:** Zer ba! Primadera aintzineratu baita! Zer uste duzu, Marta gaixoa, guri ere ez zaigula azala zakartu?

**MARTA:** Jarri zaite hementxet, jaun Erretora. Har zazu kafesnea gustuan, bero beroa. Ogia ere gorritua dizut usain hartzen duzun bezela.

**ERRETORA:** (*Jarririk*) Ogia gorritua nik hartzen? Nork erran dizu hori?

**MARTA:** Jesus! Nik ez dut ba asmatu. Herrian hola erraiten zuten.

**ERRETORA:** Erran! Erran! Beti erran! Egundaino ez dizut nik sekulan, entzun duzu, sekulan ogia jan gorriturik!

**MARTA:** Eta... Nola asmatzen dituzte ba, holakoak?

**ERRETORA:** Zer nauzu! Jendea mintzo baita aixe!

**MARTA:** Bai, bai... Hartaz, mihi luzeak ba dire franko Gantzarain-en, jaun Erretora. Behazu, orai ere, zer zuten asmatua! Barkatuko duzu, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Jakinen bai dut nik aixe, nor ari den hor bazterrak arrotzen. Ogia gorritua, nik? Ixil araziko daukitzut nik aixe, suge tzar mihi luze kalakari hoiek! Zaude deskantsuan! Ogia gorritua beraz nik, he? Bego, bego...

**MARTA:** Errazu, jaun Erretora, ta... Gure mutiko hori nola atxeman duzu? Hirugarren gaua du gaur, ogean sartu gabe. Ez dizu jaten, ez edaten, ez pausa hartzen. Numeroak egin eta pianoa jo... Izarretaraino abiatu behar omen zaigu laister. Nik ez dakit nola sinisten dioten! Paris-ko jaun haundienak bere menean ditu... Ministru, anbasadore, jakindun... hor ibilki zaizkio, zakur kumeak amaren inguruan bezela, zer aterako dioten!

**ERRETORA:** Aspaldi munduan izan den bururik azkarrena omen duzu. Eta ni, katixima egiten niolarik, batere ohartu ez! Ze nauzu! Begiak behar bai dire, argia ikusteko ere!

**MARTA:** Errazu, jaun Erretora, harrituko zaitut beharba baina, nahi duzu nik egia erraitea? Nik ez bait dut sinisten horrek holako buru izigarria duenik. Kasko horren barnean zerbeit ibilki zaiola biraka bai, nahi dut. Baina gauza onik ez. Horrek talendu pittat balu, uste duzu bizi geran bezela bizi-ko ginduzukela gu egun? Hori ez!

**ERRETORA:** Nola bizi zaizte ba, Marta?

**MARTA:** Nola bizi? Mixerian!

**ERRETORA:** Tira, tira! Asia zera, zu ere, ametsetan? Iñaki Bizkai, egun, Paris-en mixerian? Tira, emaztekoa, tira!

**MARTA:** Mixerian, bai jaun Erretora, mixerian. Ameika aldiz afariari paso eginik lokartu beharrez. Erroa baita! Eta dituenak oro, purra purra, inguruan berduratzen! Munduan norbeit goseak hilen zai-gun artean, ez omen dugu guk behar aina jateko eskubiderik. Pentsa nola ibilki den horren burua! Eta norbeiti munduan bere libertatea kentzen ba diote, bertze denak behar omen genituzke, golpez, gure buruak eskeini preso. Bizi zaite, holako batekin etxean! Bere fedearekin ere... Atzo zen noski... Hura hor, numeroak egiten. Eta ni hementxet, puska zahar batzu

antolatzen. Golpez jaiki, besotik hartu eta eramandu ninduen leihorat: «Nor bizi da hor, eliza hortan, izeba?» «Gure Jainko maitea» erantzun nion ahal bezin pulliki. Haren oihuak: «Gezurra! Gezur haundia! Zuk ez duzu hori sinesten! Zuk hori sinetsiko bazinu, ez zindazke eliza barnetik ateratuko! Jan gabe, edan gabe, lo egin gabe, hantxet iraganen zituzuke egunak eta gauak, izarren egileari so harritua, belauniko emanik...!» Mintza zaitte horrekin, gero!

**ERRETORA:** Ze nauzu, Marta! Beharbada arrazoina du! Guk lainoz ikusten ditugu gauzak. Eta horrek aize egoaz. Horrek bertze begi batzu ditu!

**MARTA:** Begietan ez du horrek deus, jaun Erretora. Buruan du horrek bere eritasuna, buruan.

**ERRETORA:** Marta...

**MARTA:** Zer duzu, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Behar nauzu lagundu

**MARTA:** Zertan, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Eneko-ri berria emaiten...

**MARTA:** Zer berri, jaun Erretora. Izitzen asia nauzu...

**ERRETORA:** Marta...! Gure Gantzarain akabo da!

**MARTA:** Gure Gantzarain akabo?

**ERRETORA:** Bide berri hori... bakizu? Pasa arazi beharra dute herriaren erdi erditik. Plaza, eliza, hilerria... denak azpian hartzen ditu. Atzo goizean jakin arazia didate ofizialki. Eta nik hiluntzean trena hartu.

**MARTA:** Bainan nun dute hoiek ere burua? Mundua ez dute aski zabala, bidea, doi doia, herriaren erditik pasa arazi behar izateko?

**ERRETORA:** Bertzela, gure mendiska hura behar omen zuten zilatu.

**MARTA:** Zilatu? Aski zuten biratzea... Ni ez nauzu inginadore, jaun Erretora, baina...

**ERRETORA:** Hori erran bai diotet nik ere!

**MARTA:** Eta?

**ERRETORA:** Hori egitekotan, Paris-tik Lisboa-rat abiatuko direnak... minuta erdi baino geixago beharko omen luteke galdu!

**MARTA:** Eta... horren presatuak dire, beraz, beren buruak suntsitzeko? Gantzarain-go jendeak nun behar dituzte eman?

**ERRETORA:** H.L.M. hoietako etxe animale bat egin beharra omen dute bide bazterrean. Eta Gantzaraindarrak hantxe barnean ezarri. Neri ere eliza berria agindua didate. Zilo izigarri bat egi-

ten asiak izan behar zaizkizu, nunbeiten, hilerri zaharreko ezurak harat biltzeko. Eta... hilerri berria ere agindua dute, ez dakit nun!

**MARTA:** Zuk ikus, jaun Erretora, zer egin behar duzun. Ni baino buru argiagoa duzu. Baina haxe erranen dizut: Berri hori emaiten badiozu Eneko-ri, geroari kaxu. Gure mutiko horrek burua galduko baitu arras! Arras! Eta ez berak bakarrik. Maria-rentzat ere beldur nauzu, nahigabe haundiskoegia izanen den!

**ERRETORA:** Zer egin behar dut, beraz? Herria suntsitzen utzi?

**MARTA:** Ez, ez... Zuk ikus, jaun Erretora. Baina beldur naiz, hemen orai piztu behar den suak ez gaituen denak erreko, eta laister!

**ERRETORA:** Xo! Zer dire oihu hoiek, beherean? Ez dituzu entzun? Xo...!

**MARTA:** Zuri iduritu, jaun Erretora. Zu ere kexu bai zare. Bazkaria egiteko dut. Heldu dena heldu... Jainkoak eraman gaitzala eskutik!

## VII. AGERRALDIA

*Jaun Erretora, Marta eta Maria. Gero  
Eneko*

**MARIA:** *(Golpez sartuz)* Barkatu, jaun Erretora. Telefonaz deitu beharra dut!

**ERRETORA:** Egizu, egizu, Maria. Utziko zaitugu bakarrik.

**MARIA:** Ez, ez, jaun Erretora! Ez nazazutela bakarrik utzi! Otoi!

**MARTA:** *(Sukaldeko atetik)* Zer dire behereko oihu hoiek? Orai ere gertatu da hemen zerbeit...!

**ERRETORA:** Zer duzu, Maria?

**MARIA:** *(Numeroa markatzen ari)* Betikoa, jaun Erretora, betikoa...

**MARTA:** Horra zer den gure etxea!

**ERRETORA:** Jesus!

**MARIA:** Commissariat de Police?... Je vous en prie... envoyez des agents, au plus vite, chez Eneko Bizkai... 86, rue de la Fontaine, Oui; oui; le savant; l'inventeur... Eh bien, nous sortions de la maison, les journalistes nous ont aperçu... Eneko Bizkai les a vus s'approcher... alors il est

devenu fou, il a envelé sa veste, il a foncé sur eux... Mais il est tout seul, monsieur le Commissaire, eux ils sont nombreux... il avait du sang sur son visage... Merci, Monsieur le Commissaire...! Merci!

**ERRETORA:** Jainko maitea!

**ENKO:** (*Atetik*) Norkin ari zinen erderaz? Nori egin diozu dei? Polizari? Aski dute ene aintzinean agertzea! Gorde beharko dire ene begietarik, astiko ohoinak bezela! Ohoinak, bai, ohoinak! Nun da nere papera? Hau ebatsi nahi didate! Mundua xeatzeko! Munduko haur guziak odole-tan itotzeko! Nik asmatuarekin! Entzun duzute? Nik asmatuarekin! Baina ez! Nik ez nuen hartako asmatua! Nik izarrak ukitu nahi ditut! Eta ene Herriari bizia eman!

**ERRETORA:** Ezti zaite, Eneko!

**ENKO:** Jaun Erretora, otoi, ereman nezazu Gantzarain-erat, egun berean zurekin. Gantzarain-go lurrari nahi diot muxu eman. Eta gauaz, izarrerri begira, Gernikako suak argiturik, Gantzarain-go hilerrian egin nahi dut Gantza... Pestaberriz bezela! (*Lotzen da dantzan*)



**MARTA:** Eta hunek egin behar omen ditu «Zazpirak bat»! Erro hunek!

**MARTA:** Enetzat ez da erroa! Enetzat poeta haundi bat da!

**ENKO:** (*Dantzatik golpez gelditurik*) Errazu, jaun Erretora! Hilerriko gereziondo hura gorritua duzu ianeko? Gantzarain eder duzu, ez da hala?

**ERRETORA:** Bai, haurrak, bai. Eder da, eder da! Orai primaderan, bereziki! Ni etxetik ateratzean, goizean goizik, hoino herria lo egoki eta plaza utsik. Goizeko aize urdinaren agurra, nik hartzen dizuet lehenik. Eta, elizarako bidean, hilerrian sartzen nauzutela, hilobiak atxematen ditut iduzki gorritz jantzirik. Ezkila-soka igitzen dizuet. Eta, pulliki pulliki, inguruko zakurrak asiko zaizkit saingaka, leihoak garraxita, zahar zonbeit estulka, mutikoren bat, beharba, kantuz... Egiten diot ene buruari: «Ganix, gaixoa, hire Gantzarain asia zaik esnatzen, egun ere! » Eliza barnea atxematen dut hoino hilunean. Eta hantxet, eni begira, hi Eneko, hire izarren jabea! Hura ez diat atzartu beharrik izaten! Haren aintzinean ematen naiz belauniko... irriño bat ezpainetarat heltzen zaidala. Apez batentzat,

haurrak, goizeko otoitz hura duzute pullitena, nik uste. Zuk ba duzu hartaz, Maria, olerki eder bat egina. Buruz ikasia dut. Eta, laburra baita, eguneko lanaz mintzatzen asi baino lehen, hura erraiten diot, goiz guziz, ene Nagusiari.

**MARTA:** Egiazko poeta, egiazko olerkaria, zu zera hemen, jaun Erretora!

**ENEKO:** Ni ere eztitu nauzu, ohartu gabe.

**ERRETORA:** Poesiak eztitzen du beti! Eta apeza, egiazko apez izan nahi badu, behartua duzute poeta izaiten!

## VIII. AGERRALDIA

*Lehengoak eta Monteflorido*

**MONTEFLORIDO:** (*Atetik*) Je m'excuse infiniment...

**ERRETORA:** Avec qui avons-nous l'honneur de parler?

**MONTEFLORIDO:** Marquis de Monteflorido, Ambassadeur du Généralissime Franco á Paris.

**ERRETORA:** Ganix Haltzuet, chargé d'affaires de N.S. Jésus-Christ á Gantzarain...

**MONTEFLORIDO:** Pouvez-vous me dire, Monsieur le Curé, où habite ici M. de Bizkai?

**ERRETORA:** Vous l'avez buruz buru, Monsieur l'Ambassadeur...

**MONTEFLORIDO:** Comment? C'est vous?

**ERRETORA:** Vous ne l'imaginiez pas comme ça, eh? Il est resté ce qu'il était... un jeune berger de la Basse-Navarre! Un berger savant, si vous voulez, mais un berger...

**MONTEFLORIDO:** De la Basse-Navarre... Oui, vous êtes Français de naissance, mais votre sang est espagnol, n'est-ce pas?

**ERRETORA:** Si cela vous fait plaisir, Monsieur l'Ambassadeur, zaude gustian!

**MONTEFLORIDO:** Je vous apporte une bonne nouvelle, Monsieur de Bizkai. Je suis chargé par mon Gouvernement de vous remettre «La Grande Croix du Mouvement - La Gran Cruz del Movimiento». Si vous voulez bien, la cérémonie pourrait avoir lieu à l'Ambassade. Je tacherai de réunir le Tout Paris.

**ERRETORA:** Tout Paris vous allez mettre à l'Ambassade? Eh bien! Vous avez de la place chez vous, Monsieur l'Ambassadeur!

**MONTEFLORIDO:** Mais je voudrais surtout inviter votre famille, Monsieur de Bizkai. Vous avez des parents á Gernika, je crois? Pouvez-vous m'indiquer leur adresse?

**ENEKO:** Harrien azpian.

**MONTEFLORIDO:** Harrien azpian. C'est le nom de la rue, je suppose? Je n'oublierai pas... Harrien azpian.

**ENEKO:** Nik ere ez dut ahantziko, zaude segur.

**MONTEFLORIDO:** Si vous voulez, Monsieur, on pourrait fixer la date un peu plus tard. Que voulez-vous que je dise á mon Gouvernement de votre part?

**ENEKO:** Erraiten ahal diozu...

**MONTEFLORIDO:** Je m'excuse, je ne parle pas le basque, même si le basque est une des plus grandes richesses spirituelles de l'Espagne. Mais vous, Monsieur de Bizkai, vous parlez l'espagnol?

**ENEKO:** Erraiten ahal diozu zure Jaurlaritzari...

**ERRETORA:** Il dit que vous pouvez dire á votre gouvernement...

**ENEKO:** Zuek emanikako gurutze hori...

**ERRETORA:** Que cette croix que vous lui donnez...

**ENEKO:** Gogotik hartuko dutala...

**ERRETORA:** Il la recevra avec plaisir...

**ENEKO:** Enekin eremanen dutala beti...

**ERRETORA:** Qu'il la portera toujours sur lui...

**ENEKO:** Eta maiz ene ezpainetarat urbilduko...

**ERRETORA:** Et souvent il l'approchera de ses lèvres...

**ENEKO:** Gurutze hortan izan baita... gure Herria gurutzikatua!

**ERRETORA:** Puisque c'est sur cette Croix que son Peuple...

**ENEKO:** «Gure» erran dut!

**ERRETORA:** Puisque c'est sur cette croix que notre Peuple... a été crucifié...! Ne vous fâchez pas, Monsieur l'Ambassadeur! Zaude deskantsuan...

**MONTEFLORIDO:** Mais je ne fâche pas, Monsieur le Curé! Il est fou!

**ERRETORA:** *(Bere baitan)* S'il est fou ere... ez da bakarra!*(Eneko-k, ixilean, zabalduko dio atea. Eta Monteflorido, hitzik erran gabe, arroki, ateratu-ko da. Salda-ontzia eskuan ekarki, Marta sartu-ko.)*

**MARTA:** Heldu zaizte? Prest da. Mahaina sukaldean emana dizuet, usaian bezela. Barkatuko duzu, jaun Erretora, ezpaita bazkari luzea izanen...

**ERRETORA:** Erretor zahar bati entzuna nion: «Mahainean beharrenak, salda eta amodioa!» Hoiek ba

ditugu, nik uste? Beraz... mahainerat, gazteak!  
(*Ixilka*) Errazu, Marta, nun dire hemen...

**MARTA:** Urrunsko, jaun Erretora. Bidean loreontziak emanak bai ditut, aski duzu heieri segitzea.  
(*Belarrirat*) Erran diozu zerbeit?

**ERRETORA:** Fitxik ez hoino! Orai, lusagarren aitzekiz, beharba...

**MARTA:** Jainkoak lagun gaitzala! Heldu, gazteak, heldu! (*Ba doaz biak.*)

**MARIA:** Eneko! Odola duzu kopetan. Nahi duzu garbitzea? (*Bi gazteak jarriko dire elgarren ondoan. Eta Maria-k, bere mukanexarekin, Eneko-ri odola xukatuko.*)

**MARIA:** (*Irriz*) Horra... Euskeldun odola... Nik ez dut...

**ENEKO:** Arimek ere ba dute odola, Maria...

# BIGARREN ZATIA

*Lehengo gela hura bera. Arratsaldeko  
horen biak. Bazkal ondoren.  
Eneko, ogean jarririk, ilun, gogoketan,  
ametsetan bezela. Erretora, hura ere  
kexu, harat-hunat ibilki.*

## I. AGERRALDIA

*Eneko eta Erretora. Gero Maria*

**ERRETORA:** Orai ba dakizkik denak. Erran beharrak erranak dizkiat mahainean. Eta ez aixe. Hi hola ikusi eta, bi aldiz sufritzen bai diat nik: hitaz eta nitaz. Maria-k ere ez dik hitzik erran. Bainan Maria-ren arima gitarraren soka bezin tinkoa duk. Eta mintzo nintzakiolarik, begietan agerizikan, gaixoak, bere barneko galerna. Orai ere ez duk hemen. Segur nauk, ixilean nigar egiteko nunbaiten gordea dela. Bazkariaren astape-

netik behartu nauzute kolkoan ekarki nuena salatzen. Eta geroztik, ez Maria-k eta ez hik, ez duzute agorat ahamenik ereman. Horra gure Paris-ko bazkaria!

**ENEKO:** (*Sutan*) Nor da Gantzarain suntsitu nahi duen kriminala? Nortzu dire abere tzar madarikatu horiek? Norentzat dire presondegiak, gateak, urka-arazteko sokak? Beren Herria maite dute-nentzat, noski?

**ERRETORA:** Hitzak! Hitzak, orai ere! Hemen ez diagu literaturarik egin behar. Entzun duk? Funtxazko lanari behar gaituk lotu orai. Ez poesiari!  
(*Pausa*)

**ENEKO:** Nun da Maria? Maria nahi dut ikusi! (*Oihuka*)  
Erran neri! Nun da Maria?

**MARTA:** Zer ari zaizte? Zer dire oihu hoiek? Errana nizun nik, jaun Erretora, zer gerta beharra zen hemen!

**ERRETORA:** Eta ixildu banintza, obe zitaken? Jakin izan banu, ez nintzaizuten etorriko ere!

**MARTA:** Zer erran behar dute auzoek, Eneko?

**ENEKO:** Auzoek? Auzoek erran du? Nun dire hemen auzoak? Auzoa sobera hitz haundia duzu, Pari-



serako! Nun da Maria? Erran neri! Maria behar dut ikusi!

**MARTA:** Maria duk orai buruan? Ateratua duk, etzekiat nora. Sahetsean dukala, zergatik ez diok estimu geixego agertzen? *(Ba doa)*

**ERRETORA:** Jarri adi, Eneko. Eta ezti adi. Bestela banoak ni ere hemendik, gaueko trenari begira egon gabe.

**ENEKO:** Xori kumeak ebasten zizkiguten orai arte. Zer behar digute orai? Kaia ere suntsitu? Jaun Erretora! Ez dut ene Herriaren azken atsa entzun nahi!

**ERRETORA:** Eta zer uste duk? Hik bakarrik maite dukala Euskal Herria? Zertarat etorria nauk ni hunat egun, ez baduk Gantzarain-en salbatzerat? Maitatzeko ez duk oihuka lotu beharrik. Hori ere jakin zak!

**ENEKO:** Hartzek ere errespetatzen dituzte beren harri-ziloak. Baina hoiek ez! Horientzat ezpaita ez lurrik, ez harririk, ez ezurrik, ez Herririk, ez mintzairik, ez arimarik, ez hilobirik...! Bideak, bideak, bideak... Zenbat eta luzeagoak, zenbat eta zabalagoak, zenbat eta zuzenagoak... Joaiteko, jiteko, ibiltzeko!! Har azpian haurrak, har

azpian Herriak, jo bazterrak, jo elgar, jantzi odol gorritz, besta baita!! *(Pausa)* Baina ez geldi, segi beti, egin arrabots, egin irri, egin nigar, berdinduk, baina ez ixil! Ez ixil! Iragan odoletan hilerrien gainetik! Ez izitu! Ixiltasunari behar zaio beldur! Ez bertze deusi! Hil, beraz, Gantzarain! Hil!! Hil!! Hiltzea merezi du! Gantzarainen oraino ixiltasuna entzuten baita!

**ERRETORA:** Eta hik? Zergaitik nahi duk izarretaraino joan? Hori ez duk ibiltzea?

**ENKO:** Izarretaraino joateko ez da Euskal Herria suntsitu beharrik!

**ERRETORA:** Errak, Eneko. Mintza gaiten gizonki. Nik ez nizuen berria hola, horren golpez, eman behar. Aitortzen diat. Zuek, poeta haundiak bai zaizte biak. Eta poetak, egiazko poetak, holakoetan sufritzen bai dik. Barka zak beraz. Maria-ri emanikako pena, bereziki. Baina lot gaiten lanari, haurra. Berriz ere erranen bai diat: Gantzarainen bizitza hire eskutan zegokala. Entzun duk?  
*(Pausa)*

**ENKO:** Jaun Erretora...

**ERRETORA:** Zer duk?

**ENKO:** Zer da amodioa?

**ERRETORA:** Hori! hau ere behar bai nian entzun! Mutiko gazte bat apez zahar bati galdezka amodioa zer den! Hik bezin bat numero egiten ibili gabe, horrenbertze ba zekitek hi baino gazteagoak ere Gantzarain-en! Eta ez, segurki, beren Erretoraren ezpainetarik ikasia! Amodioa zer den, nahi duk nik erraitea? Amodioa duk, mutikoa... orai Maria-ren ikusteko sentitzen dukan egarri pullit hori!

**ENKO:** Maria sufritzen ikustea baino, nahiago nizuke nihaurrek zer nahi iragan eta sufri!

**ERRETORA:** Gezurra! Maria aspaldi ari zaik sufritzen! Eta ez Gantzarain-en gatik...! Entzun zak ongi! Aski duk erraitea: Hire asmakizun izigarri horren berri emanen dukala Gantzarain bizirik uzteko-tan. Eta bertzela, ez!

**ENKO:** Ez! Gantzarain maite dizut, jaun Erretora, amorrainek ur bizia bezin bat. Baina nere asma-kizunaren ordaina ez da Gantzarain. Euskal Herri osoa da. Euskal Herria-ren batasuna, oho-rea, bizia, geroa...!!

**ERRETORA:** Ago ixilik, mutikoa! Askatasuna! Batasuna! Izarrak! Poesia! Lehenik salba zak Gantzarain-go plaza, mutikoa! Gero ere salbatuko duk,

astia baduk, Euskal Herri osoa! Zer nahi duk hik? Dena, ala deusik ez? Hola ari zaizte zuek: bihotzez, bai, bainan bururik gabe. Hori ez duk tratuan aritzeko manera.

**ENEKO:** Poetak ez daki tratuan, jaun Erretora! Eta Euskal Herria salbatzekotan, olerkariak salbatuko dute. Ez makiñonek!

**ERRETORA:** Zer erran nahi duk? Gantzarain-go Erretora makiñona dukala? Makiñona izaiteko, haurra, behar dik jakin saltzen. Eta nik etzekiat. Herriko ene astoak oro ezagutzen dizkiat, bai, urrundik: prestuak, alferrak, begi okerrak, mainguak... Baina munduko urre guziaren gatik ere, batto ez nitek salduko, entzun duk? Ez bai zaizkit hartako emanak!

**ENEKO:** Barkatu, jaun Erretora. Erroa naiz. Aize egoak ibilki ditu ene hitzak, arbola gorrietarik eroritako ostoak bezela... biderik gabe!

## II. AGERRALDIA

*Lehengoak eta Maria*

**MARIA:** (*Sartzen da, maletatxo bat eskuan*) Barkatu!

Ez nuen uste zuek hemen arkitzea. Sukaldean utziak bai zinduzten...

**ENEKO:** (*Goxoki*) Nun zinen, Maria? Norat joana zinen?

Zer duzu eskuan? Nundik zatoz? Norat zoaz?

**MARIA:** Telefonaz deitzeko sartua nintzen, orai ere...

**ENEKO:** Norkin mintzatu behar zare?

**MARIA:** Hemen atxeman bai zaituztet, entzuten ahalko duzute aixe...

**ERRETORA:** Kaxu! Hoiekin ezpaitakik sekulan, nundik aireatuko zaikan pekatua...!

**MARIA:** (*Telefona hartzen du*) Monsieur de Chantal? Monsieur de Chantal je m'excuse bien sincèrement... Je vous avais promis de passer chez vous pour vous remettre mon livre. Hélas! Maria Lorka vient de mourir...

**ERRETORA:** Hara! Zer erraiten nian nik! Toki onera etorria nauk ni, laguntzaren eskean!

**ENEKO:** Zer duzu, Maria?

**MARIA:** Mon livre? Depuis un instant, il est au fond de la Seine...

**ERRETORA:** Nola? Aitaren eta Semearen...

**ENEKO:** Maria! Zer egin duzu? Norat bota duzu zure liburu-gaia? Erran neri! Nun dire zure poemak?

**MARIA:** La vraie raison? Le massacre de Gantzarain. Le massacre du Pays Basque! J'en proteste devant le monde!

**ERRETORA:** Baina... Gantzarain ez dute oraino suntsitu! Salbatzen ahal duzute! Nun duzute zuek burua?

**MARIA:** Gantzarain? Gantzarain est le véritable auteur des poèmes que Maria Lorka avait su écouter...

**ERRETORA:** Aitaren eta Semearen... Hoi burua! Hoi burua!

**ENEKO:** Maria Lorka-ren euskerazko Poemak ez dire galtzen ahal! Nik atxemanen ditut uraren azpian! Gaki naiz!! (*Abiatzen da*)

**ERRETORA:** Ago hemen hi, erroa! Nun duzute burua zuek? Zer uste duk? Ibaiaren ondarrean arrapatuko ditukala hik Maria-ren Pertsuak? Zer nahi duk hik? Hire burua errekarat bota? (*Marta sartzen da*)

**ENEKO:** Nere burua baino beharrezkoagoa du Euskal Herriak Maria-ren Poesia!

**MARTA:** Zer dira, orai ere, oihu hoiek? Zer gertatzen da?

**ENEKO:** Joaki naiz! (*Abiatzen da*)

**ERRETORA:** Ago hemen! Edo bertzela, joaki nauk ni ere! Baina etxerat! Hik hauta!

**MARIA:** Vous dites que j'ai perdu une fortune?... Mais, Monsieur de Chantal... je n'ai jamais fait des vers pour de l'argent!

**ENEKO:** Nola? Dirua aipatzen dizue? Dirua? Nor da, etxe huntan, dirua aipatzeko kopeta duena? Hemen ez dugu diru beharrik!

**MARTA:** Baina haurra, otoi! Urrikal adi hitaz, gutaz! Gaurko porru salda erosteko ere sosik ez diat! (*Nigarrez badoa*)

**ENEKO:** Erraiten ahal diozu, ene izenean, gizon ausarta horri: Ez dela oraino sortu, ene aintzinean Maria Lorka-ri dirua aipatzeko kopeta izanen duenik! Itotzen naiz ni mundu huntan, jaun Erretora, itotzen! Errokeria entzuten egoitea baino nahiago dut aixe... pianoa jo! (*Emanen da pianoan eta jotzen lotuko*).

**ERRETORA:** (*Ordularia ateratuz*) Neri trenaren orena ari zait urbiltzen, zuek ikus. Apez hunek, bizi bada beti, bigar Gantzarain-en emanen baitu meza! Orai, zuek ikusi!

**MARIA:** Je vous demande, Mosieur de Chantal, de croire toujours á ma reconnaissance et á mon amitié. (*Maria-k telefona utzi-eta asiko zaigu paper eta liburu zonbeit bere maletatxoan sartzen*)

**ERRETORA:** Baina zergatik ez gera lanari lotzen, Maria? Zergatik ez gindazke seriocki mintzatuko? Norat zoazi, Maria, paper eta liburu hoiekin?

**MARIA:** Nereak dire, jaun Erretora. Aspaldi, hunat eka-riak nituen.

**ERRETORA:** Baina... norat zoazi orai?

**MARIA:** (*Nigarrez*) Ez dakit...

**ERRETORA:** Baina zer egin duzu? Zergatik bota ditutzu uretarat zure olerki hoiek?

**MARIA:** Munduan ez duzu, jaun Erretora, ni baino haur galduagorik. Ene bakardadean, Gantzarain maite nizun eta Eneko. Biak batean ezagutu nituen. Enetzat biak ziren bat. Gantzarain-en usain bera arrapatzen nion Eneko-ri. Eta Gantzarain-go horri eta lurrak maite nizkizun...

**ERRETORA:** Mintza zaite deskantsuan, Maria...

**MARIA:** Neska batek bere gizon-gaiaren gorputza maite lezakean bezelaxet...

**ERRETORA:** Ba! Poesia! Harri eta lurrarekin eginikako pekatuak aixe barkatzen ditut nik. Bertze hura



litake pekatu larria, Maria. Gantzarain hiltzen uztea. Hura hura pekatu!

**MARIA:** Gantzarain hila da neretzat, jaun Erretora, xut izanik ere. Zertako nahi nizuke Gantzarain, Eneko-rik gabe?

**ERRETORA:** Haaaa! Ikusten? Beretzat ez paita gehiago Gantzarain-ik, orai suntsitu lezakete gaixo gure herria! Horra gure egungo poetak! Lehenik ni, gero ni eta azkenik ni! Egiazko poesiak, Maria, ez du beretzat lan egiten! (*Goxoago*) Eta hortarik landa ere, nork esan dizu zuri Eneko galdu duzula? Zer poeta zaizte zuek eta zer gazte, hitzik gabe, soinuz, ez bai duzute elgar aditzen? Orai ere, mutiko tzar hori bere pianoaz... ba dakit nik zer ari zaizun erraiten!

**MARIA:** (*Arriturik*) Neri...? Uste duzu, jaun Erretora, neri ari zaitala mintzo? Egiazki uste duzu?

**ERRETORA:** Ha, gaixoa! Utz itzazu puska hoiek hortxet, lehengo tokian! Eta sinetsi nazazu ni! Makiño-nak hartako eginak bai gare: Poeteri erakusteko muxika behar bezela entzuten!

### III. AGERRALDIA

#### *Lehengoak eta Arlote*

**ARLOTE:** *(Atetik)* Zer? Hemen ere... apaiza?

**ERRETORA:** Eta zu... nor zaitugu, gizon, barkamendua-rekin? Gipuzkoarra, noski, mintzairatik ageriduzunez...

**ARLOTE:** Nor ari zaizue hor, pianoa jotzen?

**ERRETORA:** Zuk atxeman nahi zenuen hura bera, nik uste...

**MARTA:** *(Golpez agertuz)* Sukaldeko atetik ikusia bait nik gizon hau sartzen...! Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez....! Barkatu, baina, ez! Ez dugunetik emaiten ibiltzeko baino, obekiago gaituzu, gaitzoa, eskean lotzeko gu ere!

**ARLOTE:** *(Bortizki)* Eta eskean heldua naizen, nork errana dizu zuri? Emazte sortu izaitea baino mixeri haundiagorik bai ote?

**ERRETORA:** Eskean heldu bazina ere, gizon, zuretzat ohore?

**ARLOTE:** Nor da hemen Eneko Bizkai? Pianoa jotzen ari den hori?

**ERRETORA:** Zer ba! Urbiltzen ahal zera, beldurrik gabe.

**ARLOTE:** Beldur? Zeri beldur? Nik ez diot gizonari beldur. Berdin zait neri, Eneko Bizkai izaki ala... Sorgin-Borda'ko Pettan. (*Urbiltzen zaio. Eneko jaikiko da golpez*)

**ENEKO:** Nor zera? Zer behar duzu?

**ARLOTE:** (*Boza azkar batekin kantuz*) «Gernikako Arbolak da bedeinkatua, euskeldunen artean guziz maitatua...»

**ENEKO:** Boza ederra duzu oraino! Izeba! Ekarriozu baso bat arno gizon huni...!

**MARTA:** (*Arnoketarat doala*) Hau behar genuen guk orai hemen! Guhaur ere ez bai ginen aski! (*Ba doa*)

**ARLOTE:** (*Kantuz*) «Donostia-ko hiru Damatxo Errenderia-n kantari... Josten ba omen dakite baina, ardoa edaten obeki...»

**ERRETORA:** Kantutik bizi al zera, adiskide? Noiztik zarezu Paris-en?

**ARLOTE:** Zer? Orai ere, asia zarezu kofesatzeko? Hobe duzu nerekin ez lotu! Makurtuko bai zindake, gaizoa, ene zakuaren pixuarekin! (*Eneko-ri*) Nor da hemen Maria Lorka? Hori noski? Bertze harek ez bai zuen poeta itxura haundirik!

**MARIA:** Zer? Ene izena ezagutzen duzu?

**ARLOTE:** Zure izena ezagutzen?... «Gantzarain-go hitzala hilerrian duzu, goizean goizetik bel-beltez jantzia... Noren alargun den...

**ENEKO:** (*Harritua*) Noiz ikasi dituzu zuk, Maria Lorkaren pertsu hoiek?

**ARLOTE:** Ez aspaldi... (*Kaparen azpitik aterako du paketatxo bat, paper zahar batean inguratua. Eta Maria-ri eskurat emanen...*) Kasu eskuak busti! Oraino ez paita xukatua!

**MARIA:** (*Bere liburu-gaia ikusiz*) Nork eman dizu zuri hau?!

**ENEKO:** Maria-ren poemak?!

**ERRETORA:** Hori!! Maria-ren pertsuak!!

**ARLOTE:** Nork eman? Urak ekarriak dauzkit eskutarat. Paris-ko ibiaia, Madame La Seine, berrogoi urte hauetan, ene adiskidea baita! (*Irriz*) Nik, zubien azpian egiten dizuet lo. Eta egunaz ere, hantxet naiz bizi, urari urbil, freskura ederrean. Astian, hantxet, harri gainean, iduzkiari buruz, ene zakur zaharrari kukusuak kentzen ari nintzai-zuela, emazteki bat ikusi dut, bere gorputza luzatuz, legorretik, ibaiari begira. Ixtant batez pentsatu dut bere burua behar zuela urerat botatu. Beharrik ez! Haren eskutik, zerbeit ikusi

dut, gero, ibaiarat erortzen. Eta emazteki hura gorde orduko, urak berak ekarria zautan zure liburua oinetaraino, eta hantxe, adar batean kokaturik, ene begien aintzinean, utzia. Paris-ko arbolak, udaberrian, urari muxuka ibiltzen bai dira...

**ERRETORA:** Mirakulurik ez dela? Hunek iduri du mirakulua!

**MARIA:** Poesiak ere egiten bai ditu, jaun Erretora, segi, segi!

**ARLOTE:** Enegandik ez urrun, harriaren gain etzanik hura ere, mutiko eder bat zegoen, ahantxu biluzirik, bere gorputza iduzkitan gorritzen emana. Golpez, bere burua urerat botaturik, harek lagundu nau, aski pulliki, urak ekarria eskutartzen. Liburua zabaldu dugu biek. Eta ber-betan, mutiko haren oihua: «Maria Lorka-ren Poemak, bere eskuz idatzita!» Muxu ere eman dio liburuari!

**ENEKO:** *(Kexu)* Segi-zu, gizon!

**ARLOTE:** Ez zaite aserretu, gazte! Paperari emanikako muxuak ez paitio nihori afruntu egiten!

**ENEKO:** Maria Lorka-ren Poemak ez paitire paperezkoak! Odol eta aragizkoak bai dira!

**ARLOTE:** Hori bera entzun diot ene gazteari, liburua zabaltzean: «Greka ikasten ari naiz, esan dit, baina Maria Lorka-ren Poemak bere egiazko mintzairean irakurtzeagatik, nahiago nizuke egun, Grekaren plazan, euskeraz banekizu.» «Euskeraz, ba dakit nik... » erantzun diot, orai arte sekulan senditu ez nuen urgulu batekin! Eta hori entzutean, mutiko hua gelditu zait begira... golpez Napoleon eta de Gaulle, biak batean agertu izan bazitzaizkon besela...! Ene luma zaharra galdetu dit, gero. Eta lehen orrian ezarria dizu zerbeit. Hor atxemanen duzu...

**MARIA:** (*Irakurtuz*) «Maria Lorka-ri. Zu ezagutzea! Munduan ez nuke beste ametsik! Poeta gazte bat.»

**ERRETORA:** Mundu osoan ezaguna zera zu egun, Maria. Eta, zure bitartez, Euskal Herria!

**ENKO:** Gizonak gizonari egiten ahal dion fagorerik haundiena egin dautazu, gizon. Nola ordainduko dautzut nik?

**ARLOTE:** Nola ordaindu? Nik erran behar banu...

**ENKO:** Bai, errazu...

**ARLOTE:** Eman zaitetze biak hor, elgarren ondoan...

**ENKO:** Zertako?

**ARLOTE:** Euskeldun arlote zahar bati plazer egiteko...

**MARIA:** Hola bada... *(Ematen dira elgarri urbil)* Zer egin behar dugu orai?

**ARLOTE:** Zuek egon. Eta ni ari. Ene ofizio bakarra ez paita kantuz hartzea...

*(Besapean ekarki dituen bi kartoinen artetik, ateratuko du papera. Zarpatik lapitza ere. Eta kadira batean jarririk, kantuz, asiko da gazteen itxura egiten).*

**ERRETORA:** Hori! Itxurak egiten ere ba dakizu?

**ENKO:** Zer? Ez! Hori ez! Gure itxura ez du nihork eremanen!

**ARLOTE:** *(Bortizki)* Ez nauzu eskalea! Nahi baduzu erran. Eta bestela berdin.

**MARIA:** Otoi, Eneko! Ene Poemak...

**ENKO:** Egizu ba...

**MARIA:** Egizu, egin...!

**ERRETORA:** Eta... ni Paris-eraino zertarat etorria nintzen, gogoan duzute? Tenoreaz ohartuak zaizte? Zuek ikus! Ni ez bai nauzute aixe gaur hemen geldi araziko, egon trankil.

**ENKO:** Hori ikusiko dugu, jaun Erretora.

**MARIA:** Hori, hori!

**ERRETORA:** Ikusiko? Ez jaun andreak. Ongi ikusia da hori. Huna hemen: «Gare d'Austerlitz - 21 h. 45» Haurrak bezela zaizte zuek: Hau har, bertzea utzi, orai nigar, gero irri... Funtsarik ez!

**ENEKO:** Errazu, Maria! Asmo bat etorri zait. Jaun Erretora lagunduko bagenu Gantzarain-erat?

**MARIA:** Trenaz...? Nik ez paitut sosik, Eneko!

**ENEKO:** Egia! Baina... bigar goizean, otostopa eginez abia gindazken hirurak lorietan! Joanen gaituzu, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Ni zuekin...? Ya, ya, ya, ya, ya... Ez! Nahikoa ikustarazi didazute egun, otostopa egiten ibili gabe ere! Gantzarain-erat heldu ba zaizte, hartuko zaituztet etxean gogotik. Baina... pape-ren antolatzerat etortzekotan. Bertzela ez. Apeza hemen duzue. Lekukoa ere bai. Erran garbiki: Maite duzute elgar, bai ala ez?

**ARLOTE:** Xooo! Hori... hunek erranen. (*Itxura erakusten die*)

**MARIA:** Hooo! Zoin ongi garen?

**ENEKO:** Nun ezarriak gaituzu? Gantzarain-en?

**MARIA:** Zergatik gaituzu emanak hola, hartuz-ondo baten azpian jarririk?



**ARLOTE:** «Haritz-ondo bat ezagutzen dut, iturri baten zaindari. Haritz azpian hartua diot lehen muxu, maiteari...» Gogoan duzu, Maria?

**ERRETORA:** Ze ba! Hura ere... adiskidetasunak emana, noski! Paperak behar dire hemen, paperak! Eta lehen-bai-lehen! (*Telefonak jotzen du*)

**ENKO:** Otoi, jaun Erretora! Eman zaite zu. Sobera algera nauzu ni, orai.

**ERRETORA:** Hori ere behar diat egin? (*Telefona hartzen du*)

**MARIA:** Baina, Eneko! Egiazki maite nauzu? Ez naiz, beraz, munduan bakarrik? Beldur naiz...

**ENKO:** Zeren beldur?

**MARIA:** Ez ote den sobera zorion, nerea!

**ERRETORA:** (*Telefona eskuan*) Xooo! Halooo! Qui est á l'appareil? Xooo! Xooo! Vous parlez avec le Curé de Gantzarain...

**ENKO:** Egizu euskeraz, jaun Erretora...

**ERRETORA:** Ago ixilik, nahasia...! Edo bertzea, eman adi hi hemen! Nola?... Nor zerala erran duzu ...? Ma-o-tse-iu-mi O-no-lu-lu?... Xina-ko Anbasado-rea...? Agur jauna... ez, ez, ez duzu hura... Zer erran behar diot?... Nola? Bezperak euskeraz

kantatzen ere ikasia duzula...? Erranen diot, erranen diot, kontent izanen baita...

**ENKO:** Zakur faltsu mihikatzaileria! Eni sekretua ebas-teagatik, emanen luke horrek... meza ere! (*Telefona hartuz*) Gora zu, Mao-tse-iu-mi O-no-lu-lu! Hori da bidea? Zer nahi zenuke ordaiñez? Ene sekretua? Jaki-zu ba, merezi bai duzu: Maria Lorke-rekin ezkontzen naiz! Erraiozu Ma-o-te-tu'ri ere! Ondoko egunak arte, beraz, O-no-lu-lu gaizoa!

**MARIA:** Eneko! Ezin sinetsia dut! Ez naiz, beraz, munduan bakarrik?

**ARLOTE:** Ni ere ez bai nauzute geiago bakarrik munduan! Atxeman bai dut familia, nik ere! lupiiii!! Etxean bezela naiz ni hemen! Zubi azpian bezela! lupiii! (*Lotzen dira dantzan eta kantuz*)

**MARTA:** (*Basoarekin heldu*) Aitaren eta Semearen... Sosik ez eta kantuz!

**ARLOTE:** Ze ba! Xoriak bezela!

**MARTA:** Tira, edazu.

**ARLOTE:** Ez, andrea. Borondate gabe eskeiniak ez dit sekulan on-egin.

**BERTZEK:** Edazu, adiskidea...

**ARLOTE:** Hola bai! (*Edate du*)

**ERRETORA:** Marta! Harritua naiz! Mao-tse-iumi'ri berari entzuna diot nihaurrek, nihaurrek! euskeraz zu bezin garbiki mintzatzen!

**MARTA:** Aste bete egiten baduzu gurekin hemen, jaun Erretora, Aita Sainduari ere entzuten ahalko diozu, aixe, Ahetze-ko Mattin-ekin pertsutan ari!

**ARLOTE:** (*Basoa eskuan*) Ene familia berriari!

**ENKO:** Suari! Urari! Aizeari! Iduzkiari! Izarrerri! Eta denen gainetik, «Zazpirak bat» egiteari!

**MARIA:** Gantzarain-go plazari, elizari, hilerriari...!

**ARLOTE:** «Paris-en nago xoraturikan, zabal zabalik begiak...»

**ERRETORA:** Xo! Xo orai! Xo! Ba dut asmo bat! Asmo izigarri bat!

**MARTA:** Akabo! Bildu dute! Lehen aieruak ezagutzen bai ditut nik! (*Ba doa*)

**ERRETORA:** (*Ordulari ateratuz*) Oren bat diagu, Eneko. Mogi gaitezke, beraz. Huna nere asmoa: jautsi-ko zaizte, bi gazteak, behera...

**ENKO:** Bai, jauna...

**MARIA:** Bai, jaun Erretora...

**ARLOTE:** Xo!

**ERRETORA:** Bilduko dituzute atean diren gazetariak oro. Eta zuen iduri hori emanaz, heieri salatuko,

buru ta bihotz gabeko gizon zonbeitek Gantzarain-  
ez egin nahi duten hobena. Arrabotsa maite dutenek,  
arrabotsa ukanen dute. Bigar, Paris-ko egunkari guziek  
lehen orrian agertuko dituzte biak: Zuen itxura eta berria.  
Trankil naiz: Zuek egun duzuten ospearekin, Gantzarain ez  
dela suntsitua izanen. Ohartua bai naiz, Eneko eta Maria:  
egungo egunean, ixiltasuna ardieste-ko ere, ahal bezin oihu  
haundienak behar direla egin!

**ENEKO:** Hori, hori, jaun Erretora! Goazen bereala!

**ERRETORA:** Bego!

**MARTA:** (*Sukaldeko atetik*) Sukaldean egon nahi eta ezin.  
Orai ere ba duzute zuek zerbeit. Zer da?

**ERRETORA:** Asmo izigarri bat dugu, Marta! Utzi gaitza-  
zu orai, otoi! Presatuak bai gare...

**MARTA:** Bainan zu ere anbalatua zaitue, jaun Erretora?  
Nola horren laister! (*Ba doa*)

**ARLOTE:** Eta nik zer egin behar dut?

**ENEKO:** Zu ere gurekin jetxiko zare gazetarienganat!  
Eta itxuraren prezioa, nik egingen!

**ARLOTE:** Gora zu! Hola, beharba, Euskal Herria ikusten  
ahalko dut hil baino lehen!

**MARIA:** Goazen!

**ERRETORA:** Zoazte bai, zoazte!

**ENEKO:** Bai, goazen! Baina kasu!! (*Pausa*) Gazetarieri ez diotegu hitz bat ere erderaz eginen! Erran beharrak oro, euskeraz idatziak emanen zaizkie...

**ERRETORA:** Akabo!! Asiak gera berriz!

**ENEKO:** Eta gure iduria agertu nahiko duten egunero-ko denek, beharko dituzte guk erranak oro haren azpian euskeraz ezarri.

**ARLOTE:** Nola? Paris-ko egunkariak bigar euskeraz? lupiiii!!

**ENEKO:** Ze ba! Akabo euskeraren lotsak! Akabo Miguel de Unamuno-ren denbora! Eneko Bizkai eta Maria Lorka-ren aro berrian gare! Euskeraren aroa! Euskal Herriaren garaipena!

**ARLOTE:** Inaki Bizkai eta Maria Lorka-ri esker!!

**ERRETORA:** Ez jauna! Ez, eta ez, eta ez. Asi haiz hi, berriz ere, errokerietan? Hola ez diagu fitxik eginen! Fitxik! Gantzarain salbatu behar diagu. Eta zuek ametsetan ari, orai ere!

**ENEKO:** Ez beldur ametsari, jaun Erretora! Munduko indarririk haundiena egun ere, ametsa dugu! Herrien geroa ez paita basan, izarretan baizik! Goazen. (*Ba doaz*)

**ERRETORA:** *(Bakarrik. Otoitz-liburua ateratuz)* Atxik nazazu sendoki, Jauna, hoién ondoan burua arras galdu gabe! Tenorez ohartua bai naiz, beharrik, biltzen asia nindutela ni ere! Jauna! Hoiék egingo ez dutena, egizu zuk! Zuk ez bai duzu burua galtzen, Poetarik haundiena Zu iza-nik ere!

## IV. AGERRALDIA

*Erretora, Marta eta Martxial. Gero Eneko*

**MARTA:** Bakarrik mintzatzen asi zinen, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Hori! Zer duzu Marta?

**MARTA:** Gizon bat ba duzu sukaldean, aspaldi zure beha.

**ERRETORA:** Paris-en bada norbeit ni ikusi nahiz?

**MARTA:** Bakarrean mintzatu nahi zaitu.

**ERRETORA:** Nor da bera?

**MARTA:** *(Ixilka)* Martxial Arratibel, Urgain-eko bide-egi-lea. Odolki erraiten bai diote. Kexu duzu, bide berriari kontra egiterat etorria zaren Paris-erat.

**ERRETORA:** Horri emana bai zioten, egiteko, bide berria... Bide berria, eliza berria, hilerri berria... Eta horrentzat ez paita sosa baizik... Erraiozu sartzeko. Entzun beharrak entzunen dauzkit.

**MARTA:** (*Sukaldeko atetik*) Sar zaite, Martxial. Hemen duzu jaun Erretora, bakar bakarrik.

**MARTXIAL:** Arratsalde on, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Bai zuri ere, Martxial.

**MARTXIAL:** Paris-ko aizearen freskura hartzerat etorria, beraz, hemengo aldi?

**ERRETORA:** Jarri zaite, Martxial (*Pausa*) Atzo ikusia ninduzun Gantzarain-en. Zer behar nauzu gaur Paris-en?

**MARTXIAL:** Zuen eliza berriko itxurak erakusterat jina ninduzun, goizean, Gantzarain-erat. Atzo ez bai genuen astirik izan ere. Han errana didate Paris-en zinela. Parma-n egazkina hartua dut eta...

**ERRETORA:** Presatua ibilki zare, Martxial...

**MARTXIAL:** Ni hola nauzu beti, jaun Erretora. Asian asi...

**ERRETORA:** Eta nik, aldiz, deskantsuan ibiltzea maite...

**MARTXIAL:** Gure ofizioan, jaun Erretora, batxe ibiltzeak ez du onik ekartzen.

**ERRETORA:** Nerean aldiz, Martxial, sobera laisterka abiatzeak ere ez.

**MARTXIAL:** Zuen hilerri berriko iduriak ere ekarriak dauzkizut. Ikusiko dituzu denak. Astia ba dugu! Zaude! Mahain bat bagenu hemen... Horra! Era-kutsiko dauzkizut laister. Zato hunaino. Zato gustian!

**ERRETORA:** Ez, Martxial. Ez dut begiratu nahi ere.

**MARTXIAL:** Ze-uzu?

**ERRETORA:** Beharba... bihotz-minez hilen bai nintzaizuke! Baina... agian, hoiek denak ez paitire ametsak besterik izanen...

**MARTXIAL:** Ametsak! Barkatu, jaun Erretora. Huna hemen baimen guziak. Hau... plazako etxe triste hoiek, buruz beheiti botatzen hasteko. Horra!... Irakur zazu. Balio duten baino gehiago pagatuak izanen dire, zaude trankil. Hau berriz... To! Hilerri berriko planak. Behazu pittat... Marmolazko hilobia nahiko duenak, izaten ahalko du. Hura, beti... udako freskoagoa baita.

**ERRETORA:** Baina... Gure gaizo hilak nun eman nahi dituzute orai, Martxial?



**MARTXIAL:** Hilak? Biziengandik ahal bezin urrun jaun Erretora. Midikuek ere hola manatzen bai dute orai: urrunago eta nahiago.

**ERRETORA:** Baina... Gantzarain-go hilak eta biziak, elgarrekin egon zaizkizu beti, Martxial. Igandetan bereziki. Otoitza dela, lorea dela... edo haurrak hilobi inguruan jostaketan ibilki...

**MARTXIAL:** Ba! Xaharkeriak dire hoiek! Lehen, asto gainean ibiliko zitzaizkizun euskeldunak. Zoazi orai! To!!! Beha-iozu pittat etxe berri animala huni... Bederatzi estai, ehun bat bizi-toki beren komotitate, serbizio, garbi-toki eta bertze...

**ERRETORA:** Eta... Gantzarain-en arima nun eman behar duzute, Martxial?

**MARTXIAL:** Gantzarain-go arima? Guk ez dugu arimentzat etxerik egiten, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Martxial! Baxenaparra zaitut zu?

**MARTXIAL:** Zu bezin garbia, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Eta Gantzarain-go plazaz, hilerriaz, elizaz... hola mintzo zera! Pesta-berri egunarekin, iduzki beroan, egun hartan usain berazi bat ere izaiten baita, Sakramendu Sainduaren aintzin dantzan, herriko gaztediaren hilerrian sartzeak... horrek

ere ez du zuretzat bide berri horren bihurtzaz  
tzipiño bat balio?

**MARTXIAL:** Froga guziak eginak dituzte, jaun Erretora.  
Egin ahalak ere bai. Bidea behar bezin xuxen  
egitekotan, behartuak. gare herria suntsitzen.  
Mendia hor baita!

**ENKO:** (*Atetik. Loreatua*) Jaun Erretora! Jetsi zaite  
behera! Otoi! Zoazi laister!

**ERRETORA:** Zer da?

**ENKO:** Kazetariak nahi zaitue ezagutu! Bigar, Paris-  
eko egunkari guziek ageriko dute gure iduria!  
Londres-koek ere bai! Eta Amerika-ko denek  
dudaik! Xeheitasunak oro, munduko gazeta  
guzietan, euskeraz emanak izanen dire!! Errana  
bai diotegu: bertzela ez zutela gure itxurarik  
izanen! Ezin sinetsia da, jaun Erretora. Zoazi  
laister!!

**ERRETORA:** Eta Gantzarain? Gantzarain?

**ENKO:** Gantzarain salbatua da, jaun Erretora! Arra-  
bots izigarria egin beharra bai dute denek!  
Zoazi laister, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Zoazi laister, zoazi laister... Nik ez bai  
nikek trena galdu behar! Zer tenore dugu?

**ENKO:** Ixtant bat, jaun Erretora! Gantzarain-go Erretora ezagutu nahi bai dute!

**MARTXIAL:** (*Ixilka*) Joan, joan! Nik ere bilduko bai ditut gazetariak gero!

**ERRETORA:** Ni orai... gizon hunekin ari bai nindukan. Ezagutzen duk? Martxial Arratibel, Urgain-eko bide-egile haundia... Bide-egile, etxe-egile, eliza-egile...

**ENKO:** Sosa-egile, krima-egile... Zer bertze ohore du?

**MARTXIAL:** (*Sutan*) Hortaz mintzatuko gaituk, segidan.

**ERRETORA:** Barkatuko gaituzu beraz, Martxial... Ikusten duzunez, denak ez gera bide beretik ibilki... Ze nauzu! Gauden, ahagatik, elgarren errespetuan...! Heldu naiz bereala... tira! Goazen! (*Abiatzen da*)

**ENKO:** Ez hortik, jaun Erretora! Hori sukaldeko atea duzu!

**ERRETORA:** Barkatuko duzu, Martxial... Hemen naiz bereala... Errak, Eneko: Trenaren orena gogoan duk? Gero ere, ene paisolarekin heldu bazaik norbeit...

**ENKO:** Ken zazu, orai, paisola burutik, jaun Erretora!

**ERRETORA:** Buruan baino nahiago nitek bai besoan banu...

**MARIA:** (*Barnetik*) Jaun Erretora!

**ENEKO:** Maria duzu deika. Zoazi laister!

**ERRETORA:** (*Atetik*) Heldu naiz, Maria! Hi ago hemen, Eneko! La gare de Waterloo... zer ari naiz ni... La gare d'Austerlitz atxemanen diagu, gero, biok bakarrik? Sarri arte, Martxial... Mintzatuko gaituzu, sarri... Zaude gustian... Heldu naiz heldu... (*Eta ba doa*)

## V. AGERRALDIA

*Eneko eta Martxial, buruz buru*

**ENEKO:** Zertarat etorria zare zu hunat? Paris ezagutze-rat noski?

**MARTXIAL:** Zer uste duk? Hi noiz sortuko hintzen begi-ra egon naukala ni, Paris ezagutzeko?

**ENEKO:** Zer behar duzu zuk hemen?

**MARTXIAL:** Hori! Hire barkamena, noski! Paris-erat jite-ko ahandzi bai nian hiri baimenaren galdetzea!

**ENEKO:** Gantzarain-en makurrean, bazterrak zure alde nahastekatzerat etorri bazare hunat, orroituko

zare gutaz. Orai arte egin bai dituzu nahi-tuzunak. Orai ibili beharko zare mantxuago!

**MARTXIAL:** Zer duk? Mehatsua? Zer uste duk? Laister ukitu behar ditukan izarren dirdiraz itxutuko naukala ni? Ni ez nauk, gero, auntzaren gauerdiko eztulaz izi arazteko gizona. Zer ari zaizte zuek? Bide berria neri eskuetarik kendu eta ni leher egin arazi nahiz? Ago pittat. Hik bezin gidar luzeak dizkiat nik. Eta esku onetan ezarriak. Ez dakik, semea abokata diatala nik Paris-en?

**ENKO:** Zure seme abokata ez dut nik ezagutzen.

**MARTXIAL:** Ez eta hik hura, ago deskantsuan! Animala ona duk!

**ENKO:** Traidore ustela, zu! Sosagatik salduko zenuke zuk ama, Herria, Besta-Berriko Ostia Saindua ere! Nor duzu zuk Jainko? Urre gorria noski? Zuek galdu duzute gure Herria: euskeldun dirugose fariseu ustelak! Sosa! Zuentzat ez paita bertze eragintzalerik! Hilobi zirituak, zuek!

**MARTXIAL:** Español arraza madarikatua hi! Mihiatik ageri duk!

**ENKO:** Ez zaidazula neri española erran, bestela...

**MARTXIAL:** Española ez baintza, ez hintzake hola mintzatuko! Zuek nahastekatzen dituzute hemengo bazterrak! Zuek bai, zuek! Zaraparta ta nahas-mendua nahi baduk, pasa zak muga eta oa hire herrirat.

**ENEKO:** Ene Herrirat joaiteko ez dut nik muga pasa beharrik. Eta Gantzarain ene herria da! Entzun duzu? Gantzarain-en sortua naiz ni ere, amak, suari igesi, Gernika-tik sabelean ekarri ba ninduen ere! Hargatik maite dut Gantzarain eta hartatik ez dauzutet utziko ene herria suntsitzen! Ez duzute eginen, entzun duzu, ez duzute eginen!

**MARTXIAL:** Ago ixilik, arrotza! Gantzarain frantxesa duk eta ez española. Orai Gantzarain-en biziak hardura hartzea baino, hobe zenuten, denbora batez, Gernika-ri su ez emaita! Gorri zikinak, zuek! Herri ondatzaileak! Su-emaileak!

**ENEKO:** Gernika-ri guk eman geniola su? Errazu berriz! Errotuko bai nauzu!

**MARTXIAL:** Errotuko, hi? Ez aixe! Aspalditik egina haiz eta!

**ENEKO:** Gernika-ren azpian utziak ditut aita eta hiru anaien ezurrak. Amarenak Gantzarain-go hilerri

zaharrearan ditut. Norat ereman behar dauzkidazu zuk orai?

**MARTXIAL:** Hire arrazakoak ez ditek gure hilerrietan ehortziak izaitea merezi. Ereman hitzak amaren ezurrak, hirekin batean, Espaimarat. Zer abil hemen espantuka?

**ENEKO:** Zoaz hemendik! Zoaz hemendik laister! Otoi! Zoaz hemendik! Ene begietarik gorde zaite! Odolak hartuko bai dit gaina. Ez zaitut hil nahi! Zoaz! Gorde zaite! Zoaz laister! Baina Gantzarain herria ez zazula suntsitu! Eliza ere ez! Hilerria ere ez!

**MARTXIAL:** Nigar-merke gezurti ustela, hi! Zer habil orai Gantzarain-i begira nigarrez? Berriz ere erranen diat: Aski zenuten Gernika-ri su ez maitea!

**ENEKO:** Gernika-ri ez genion guk su eman!

**MARTXIAL:** Nortzuek ba?

**ENEKO:** Españolek eta alemanek!

**MARTXIAL:** Zer haiz ba?

**ENEKO:** Euskeldun utsa, euskeldun garbia, zu besela! Ez dut ageri mintzairatik?

**MARTXIAL:** Zuek euskeldunak bazaizte, nahiago diat nik boemia izan! Entzun duk? Eta orai aski! Gan-

tzarain-go hilerri zaharrari egiten ahal diok  
agur! Egun goizean hartua bai dik bere lehen  
dinamitazartada!!

**ENEKO:** Gezurra!! Gezurra!!

**MARTXIAL:** Gezurra? Oa eta ikusiko duk...!! Baimena  
eskuan bai nian!!

*(Eneko-k arrapatuko du Martxial lepotik  
eta lotuko dire biak borrokan. Martxial  
eskapatuko zaio golpez eskuetarik. Eta  
mahain gaineko aiztoa hartuko du  
eskuan.)*

**ENEKO:** Bota zak hori lurrerat!!

**MARTXIAL:** Hik arrapatzeko gero? Ken zaidak eskutik,  
gizona ba haiz! *(Eneko abiatuko zaio berriz. Eta  
eskutik aiztoa kenduko. Martxial aterako da  
igesi eta Eneko haren ondotik. Kanpotik entzu-  
nen dira Martxial-en oihuak:)* Ez nazakala hil!!  
Ez nazakala hil!! Aai ama!! *(Pausa baten ondo-  
tik kanpotik entzun bitez bozak).*

**EMAZTEKI BAT:** Qui est lá? Qu'est-ce que c'est que ce  
cri?



**EMAZTEKI BI:** Avez-vous entendu, Madame Verdenal?

On aurait dit le cri de la mort...

**GIZON BAT:** Et alors, qu'est-ce que ce cri? On ne va pas là-haut, non?

**EMAZTEKI BAT:** Vous aussi vous avez entendu, Monsieur Dordignon? Il y a eu un grand cri, puis...

**EMAZTEKI BAT:** Voulez-vous que j'appelle le concierge?

**EMAZTEKI BI:** Attendez, je m'en vais voir... Oh! quelle horreur! Mais c'est vous l'assassin?... Vous le Vasque, le savant, l'humaniste? Madame Trignon! Venez vite! On a tué un homme! Concierge! Montez vite au 6e! On a tué un homme!

**EMAZTEKI BAT:** Concierge! Concierge! Montez vite au 6e, on a tué un homme! (*Eneko sartuko da, arpegia zuri, eskuak odolez gorrituak, begiak urrun. Ez du iduri deusetaz ohartzen denik ere. Ixil ixilik jarriko da. Eskutako odola xukatu du bere mukanesarekin. Ez du gehiago hitz bat erranen. Begiak urrun ditu...*)

**BOZAK:** (*Kanpotik eta nahas mahas*) Qu'est-ce qu'il y a? Qu'est-ce que se passe?... On a tué un homme...! Oú cela?... Au 6e, chez Bizkai...! Il faudrait prévenir la police! Mais c'est fait! Appelez la Croix-Rouge! Oh, quelle horreur! Arrêtez

l'assassin! C'est M. Bizkai... Je l'ai vu, il est rentré chez lui...! Allons, vous êtes fou...? Laissez passer le concierge...! Pas de journalistes! Fouitez-moi le cam d'ici! Il a raison! Pas pulbicité avec le crime! Laissez passer Monsieur la Curé! On va l'installer dans l'ascenseur... Prenez-le par les jambes! Doucement!... Il faudrait lui faire le bouche á bouche, tout de même! Descendez avec lui, Monsieur le Curé! Nous on descend á pied! Doucement! Faites doucement! Enlevez-lui sa cravate, tout le même! (*Urrundik entzun bitez «Gurutze Gorria»-ren turutak: ti-tu-ti! ti-tu-ti!*) Les voilà! Ils arrivent! C'est la police! Mais non, c'est la Croix Verte! Partez d'ici! Tous! Allez! Partez d'ici tout le monde! Allez! Dégagez-moi la! Fini le spectacle!

**MARTA:** (*Sartuko da nigarrez eta jarriko da*) Bainan haurra, haurra! Zer egin duk? Zer egin duk! Arima ere dardaraz diat, gorputza bezelaxet!

**EMAZTEKI BAT:** (*Kanpotik*) Rentres-lá, Monsieur Robert! Lá, chez le meurtrier! Vous avez le téléphone...

**M. ROBERT:** C'est toi l'assassin? Tu as fait ton boulot, maintenant tu te reposes, eh? C'est bien ça!

C'est toi qui voulais arriver aux étoiles?... Toutes les portes sont fermées... Si tu bouges... Ça n'iras pas loin... (*Telefona hartzen du. Artean, eskalea sartzen da*) Allo! Commissariat de Police? Ici, rue de la Madeleine... Ah! vous êtes au courant? Vous arrivez...? Bon...! Oh! Ça doit être un règlement de comptes entre Basques, eh? Nous, on passe les vacances à Ainhoa, alors on les connaît... C'est souvent comme la, chez eux...! Je le garde à vue, il ne bouge pas... Salut! (*Arloteari*) Toi aussi, tu es Basque? C'est bien la ...! C'est comme la que vous vous battiez entre vous qu'avec les autres... Comme la vous nous foutez la paix... Si vous étiez tous unis, vous voudriez faire une nation, vous aussi... eh? Comme le Juifs, comme les Algériens, comme les noirs... On n'est pas por les nouvelles nations, nous... on en a asez comme la... (*Arlo-teari*) Tu le gardes, toi? En tout cas, on n'est pas loin, on vous garde la porte... (*Ba doa*)

**MARTA:** (*Nigarrez, Arloteari*) Nun da, jaun Erretora?

**ARLOTE:** Hil beharrari, azken atsa hartzen.

**MARTA:** Eta Maria?

**ARLOTE:** Maria? Guardak eremana dute. Eneko salbatzea gatik, aitortua baitu: bera zela hiltzalea.

**XANPIER:** (*Sukaldetik oihuka*) Marta! Eneko! Nun zaizte? (*Sartzen da. Esku batean gazeta dakarki eta bestean paisola*) Eneko! Beha zak hau! Paris-ko gazeta guziak euskeraz! Behazu! Euskal Etxeatik pasatua naiz! Euskeldun guziak dantzan ari dituk, ezin sinetsiz! Euskal Herrian ere edatu omen duk berria!! (*Golpez harritua*) Zer du? Zer duzute? Zer gertatu da hemen?

**ARLOTE:** Nundik sartu haiz?

**XANPIER:** Gibealeko atetik, beti bezela.

**ARLOTE:** Hargatik ez duk deus ikusi. Oa. Bigar mintzatu tuko gaituk.

**XANPIER:** Eta jaun Erretora? Hura segitu behar bai dut trenaren hartzerat!

**ARLOTE:** Jaun Erretora? Astian entzuna diat: Paris-en geldituko zela.

**XANPIER:** Paris-en geldituko? Zer? Paris-ek bildua du, hura ere?

**ARLOTE:** Ardi bat galdua zaiola erran du, eta... artaldearen gana ez dela itzuliko hura berriz besotan ukan arte. Oa!

**XANPIER:** Eta... haren paisolarekin zer egin behar dut?

Etxean ahantzia zuen astian.

**ARLOTE:** Utzak hor nunbeit... Usainetik ere atxemanen dik harek laister bere paisola.

**XANPIER:** Ba noa, ba. Eta barkatu. Agur...

**ARLOTE:** Zu ere zoaz, Marta. Utzi gaitzazu bakarrik. *(Marta joanen da. Eta Arlote urbilduko zaio Eneko-ri)* Seme! Ni ere, hi bezela nindukan: Bihotz haundiko mutiko bat. Egun batez, Elizondo-ko merkatuan, napar gazte bat oldartu zitzaidan, gipuzkoarreatik zer nahi erranka. Ez zikan luze mintzatu. Lepotik arrapa bainian...! Haren odolaz, eskuak gorritu nizekian nik ere. Zergatik uste duk, berrogoi urte hauetan, Paris-ko zubien azpian egiten diatala lo? Ezagun berriak izanagatik, familiakoak bai gaituk orai, begira nazak, seme! Orai, elgarri begiratzeko, ez bai diagu, ez hik eta ez nik, begiak lurrerat apaldu behar! *(Eneko-k altxatuko ditu begiak. Kanpoan entzungo dire polizaren turutak: ti-tu-ti ti-tu-ti...)*

**M. ROBERT:** *(Atetik)* Alors, eh? Tu entends ton petit panier á salade, lá? Ce n'est pas la lumière qui va te faire crever les yeux, lá dedans, eh! Et

puis les bains de soleil, mon petit, c'est pas ça  
qui va te faire brunir la peau, maintenant...!  
(*Kanpoan entzunen berriz: ti-tu-ti ti-tu-ti...*)

**ARLOTE:** Oa gustian, eme! Gero ere... hemen izanen  
gaituk gu! Oa deskantsuan! (*Polizako turutak:  
ti-ru-li ti-ru-li... Eta artean, pulliki pulliki, oihala  
etsiko*).

# HIRUGARREN ZATIA

*Lehen itxura.*

*Lehengo ganbera hura bera. Mahain ttipi  
batean, Maria, Erretora eta Joxe Mari  
(Arlote), ixilik eta goibel, afaltzen ari.  
Kanpoan ilun da. Marta-k ekarki die biga-  
rren aldiz salda.*

## I. AGERRALDIA

*Erretora, Maria, Arlote eta Marta*

**ERRETORA:** Hetsi itzazute leiho hoiek. Orain ere ba da hor norbeit...

**MARIA:** Ez dela nihor, jaun Erretora...

**ARLOTE:** Zortzi egun hauetan, iduri zaizu denak guri begira dagozila.

**ERRETORA:** Hola baita, zoritzarrez...

**MARTA:** Tira-zu berriz, jaun Erretora. Har zazu geixago. Hunek ez dizu kalte egingen.

**ERRETORA:** Aski, Marta, aski. Ongi naiz hola.

**MARTA:** Ongi naiz hola? Zortzi egun hauetan, janaria doi-doia begieri eskeiniz?

**ERRETORA:** Ze nauzu! Barneak ez bai dit galdetzen.

**MARTA:** Barnearen galdak ongi bazterrerat utziak ditugu guk aspaldi huntan, jaun Erretora. Salda xorta batek ez lizuke ba kalte eginen. Joxe Mari-k atzo ekarritako olloarekin gizendua nizuen. Horren bizkar bizi bai gera gu orai. Eta nik, orroitzen zaizte? eskalea zelakoan...

**ARLOTE:** Zaude ixilik, emaztekoa....

**MARTA:** Zaude ixilik? Egun ere, nork ekarria digu guri arraina?

**ARLOTE:** Bai! Nik zueri arraina ekarki eta zuek neri mahaina eman. Berrogoi urte hauetan ahantzia nuen mahaina zer zen. Familiarik ez bai nuen. Orai ba ditut biak: Familia eta mahaina.

**MARTA:** Gaizoa! Memento tristian atxeman duzu zuk familia, Joxe Mari!

**ARLOTE:** Orduan baita beharrena!

**MARTA:** Eta... lo ere, zergaitik ez zenuke gurekin egin behar hemen, gizona? Orai... tokia ba da. Jaun Erretorak ba du bere ganbera. Maria-k eta nik,



egun hauetan, biak oge berean nahiago. Eneko-  
ren ogea... hor dago zuretzat, Joxe Mari.

**ARLOTE:** Eneko-ren ogea... bego Eneko-ri beha. Mahai-  
narekin ere ba dut aski. Bertzela... etorri zuek  
zubi azpira! Han ba da leku denentzat!

**MARTA:** Bai! Zubi azpiak baino toki hilunagoak ba dire  
lurrean...!!

**ERRETORA:** Eta zuk orroitarazi! Ahantzia bai genuen!  
(Pausa)

**MARTA:** (Maria-ri salda eskeiniz) Zuk hartuko duzu gei-  
xeago, he Maria? (Maria-k hartzen du) Ikusten?  
Ze ba! Maria-z ez naiz kexu. Zuek baino kuraia  
haundiagoa du Maria-k. Maria-k bizi nahi du.  
Laguntzeko behar baita bizi. Eta bizitzeko behar  
baita jan.

**MARIA:** Nik bai. Nik zernahi eginen nuke orai bizitzeko.  
Sekulan ez dut sentitu orai bezelako bizi-nahia.  
Eneko-k eginen zuena, nik behar bai dut egin  
orai.

**MARTA:** Zuk ere tirazu pittat, Joxe Mari. Bero-beroa  
duzu.

**ARLOTE:** Ez, Marta, ez. Nahiago dizut, nik ere, barnea  
arin ibili.

**MARTA:** Maria aipatu duzue? Nik ez nuen urrundik ere sumatuko, Maria holako emaztekoa zenik. Gai-xoa! Zer egin behar genuen guk orai, Maria-rik gabe? Gau hartan... orroitzen zaizte?

**ERRETORA:** Aipa-zu zuk, orai ere, gau hura! Ahantzia bai genuen orai ere...!

**MARIA:** Zertako ez aipa, jaun Erretora? Egia, latza izanik ere, behar da buruz buru behatu, begiak etxi gabe.

**MARTA:** Nik ez nuela sekulan usteko, erraiten nizuen, Maria holako emaztekoa zenik. Eneko-ren orde, prest baizen hau, bere bizitza osoa presondegian iragaiteko!

**ERRETORA:** Nik Maria... aspalditik ezagutzen dut.

**ARLOTE:** Nik ez dut aspalditik ezagutzen. Baina... barkatu, jaun Erretora, horrek garbiki erraitea, ni ere barne bai naiz...

**ERRETORA:** Zoazi gizona...

**ARLOTE:** Egun hauetan hemen egiazki gizon jokatu duena, Maria izan dugu.

**ERRETORA:** Eta horrek harritzen? Holakoetan, emaztekiak hartu behar izaiten gizonaren plaza. Gizonak emaztekiarena aixe hartzen baitu!

**MARTA:** Beraz... ez duzue gehiago behar? Zuek ikus...

**ARLOTE:** Zoazi, Marta gaixoa, zoazi deskantsuan.

**ERRETORA:** (*Marta-ri begira*) Horra bertzea: Hunek ere ez du, ba, espantu haundirik ateratu. Baina gau hartan...

**MARIA:** Orai zehaurrek aipatu duzu, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Ze nauzu, Maria! Nahi gabe ere ateratzen bai zaigu... Gau hartan, erraiten nizuen, betiko tenorean, Marta-k prest zuen guretako afaria, etxean deus gertatu ez ba zen bezelaxet. Hartako, bihotz haundia behar da. Gerlan tiroz hiltzeko baino bihotz haundiagoa, nik uste.

**MARTA:** Zu, jaun Erretora, Gantzarain-erat itzuli behar zindake. Heldu den igandean Pesta-berri eta...

**MARIA:** Ikusten? Nik ere gauza bera erraiten dizut beti.

**ARLOTE:** Zoazi deskantsuan! Arrimatuko gera hemen...

**ERRETORA:** Ez jauna eta ez andreak! Gantzarain-go Erretora ez da Paris-tik mogituko. Bederen, bederen... Eneko ikusi arte (*Marta ba doa*)

**MARTA:** Sobera sufritzen ari zera, jaun Erretora.

**ERRETORA:** Eta ahagatik, Maria eta Joxe Mari, ba dut... sekulan sentitu ez dutan alegerantza bat ere Hori! Garbiki erranen dizuet: Zaharra izanagatik, ez nuen usteko, orai arte, muduan hainbat sufritu zitakenik. Eta bizkitartean, horren

bertze bozkario lurrean bizi! Zuk, Joxe Mari: Gure Eneko-rentzat ez zenuke, orai bertan, zure bizitza emanen? Eta nik ez Maria-rentzat? Eta Eneko-k ez gu laurentzat? Marta ere hor baita! Hori ez da lurrean bizitzea, adiskideak. Nik ez dakit infernuan ala zeruan bizi gaituzuten. Baina... lurrean ez beti. Xooo! Orai bai. Orai ba da hor norbeit...

**MARIA:** Ezetz, jaun Erretora! Zuri zaizula iduritzen...

**ERRETORA:** Behazu, baitezpada ere. *(Maria-k begiratzten du kanporat)*

**MARIA:** Nihor ez. Nor nauzu, orai, guri begira egoiten?

**ARLOTE:** Ba! Ez xobera fida! Gazetari hoiek ez bai dire urrun ibiliko, orai ere. Hoiek, beleak bezela, aragi ustelaren usainerat laister biltzen bai dire. *(Pausa)*

**MARIA:** Gaur ere ez duzu ikusi ahal izan, jaun Erretora?

**ERRETORA:** Bai zera! Ez bai nintzen bakarrik, gaur ere. Bi ministru eta hiru anbasadore ba zituen, egun ere, begira. Eta gureak ez nahi agertu. Presondegiko bere gelatik ez zela ateratuko. Eta euskeraz erran, gainera. Han ere ez paita euskeraz baizik mintzatzen.

**ARLOTE:** Baina... zergaitik ez ditu gizon haundi hoiek ikusi nahi? Hoiek lagunduko bai lioteke, beharba!

**ERRETORA:** Beldur baita: zernahi aitzakiz -erroa dela ala bertze- libertatearen ordainez ebatsi nahiko dioten bere sekeretua!

**ARLOTE:** Eta... bere sekeretua nahiago du, bere libertatea baino?

**MARIA:** (*Xutik*) Nik uste! Bai-eta nik, mila aldiz! Hura ez paita Eneko-ren libertatea erosteko, Euskal-Herria-rena baizik!

**ERRETORA:** Nik errana: ez gerala lurrean bizi! (*Pausa. Marta sartuko da lukainka puska zonbeitekin*)

**MARIA:** Gaurtik, jaun Erretora, bakarrik utzi behar zaituztet, zonbeit egunez. Joaki naiz.

**ERRETORA:** Joaki? Norat, Maria?

**MARTA:** Zer diozu, Maria? Norat zoazi?

**ERRETORA:** Zu baldin bazoaz, Maria, hemen...

**MARTA:** Otoi, Maria! Ez gaituzula bakarrik utzi! Zer egin behar dugu guk...?

**ARLOTE:** Xooo! Utzazute emaztekoa mintzatzen...

**MARIA:** Urgain-erat noa, gaur gauean.

**ERRETORA:** Urgain-erat?

**ARLOTE:** Zer egin behar duzu zuk Urgain-en?

**MARTA:** Asmatuko bai nuke nik...

**MARIA:** Martxial Arratibel zenaren alargunari behar diot, Eneko-ren izenean, barkamen galdetu.

**MARTA:** Ikusten? Ezagutzen bai ditut nik hoiek!

**ERRETORA:** Baina... hartako, ukanen duzu aski kuraia, Maria?

**MARIA:** Eneko-k emanen daut presondegi barnetik.

**MARTA:** Barkamena? Harek ez bazuen gurea inpiztu eta zirikatu, gureak ez zuen hura hilen!

**ERRETORA:** Zaude ixilik, Marta! Odoletik ari bai zera orai, eta ez arimatik!

**MARTA:** (*Nigarrez*) Egia duzu, jaun Erretora! Odolaren oihua azkarra da baina arimarena baino, hameika aldiz.

**MARIA:** (*Erretorari*) Zuk ekarritako gutun hortan, horra Eneko-k zer dion: «Ene buruari ekarri diozkatan sufrikarioak ez naute ikaratzen. Zuri emanak bai, Maria! Presondegiko hilunak ez nau izitu. Leihotik ageri bai zaizkit izarrak. Nihaurren erioztari ez diot beldur. Baina ene eskuak begiratzaren ditut. Eta odolez gorrituak ageri bai zaizkit, gauaz, hilunean, nigarrak urtutzen nau. Orai, har zazu zuk, Maria, ene ikurrina. Euskal Herriaren libertazaileak esku garbiak behar bai ditu.

Lehenik, zoazi Arratibel zenaren alargunaren gana. Eta erakutsi-ozu gutun hau. Gaizki hartzen ba zaitu, ixildu zaite. Ateratzean, alegerantz berri batek beteko zaitu. Eta gure Herriaren alde zernahi egiteko azkarrago sentituko zera». Gero erraiten dituenak...

**ERRETORA:** Atxik, atxik-atzu zuretzat, Maria. Amodioa ez paita eder, ixilean baizik. *(Marta-k zerbitzatzaren ditu)* Xo!! Orai ere ez duzue entzun? Lehen ere ba zen hor norbeit...

**MARIA:** Iduri luke norbeit horren beha zarela, jaun Erretora.

**ARLOTE:** Orai... iduritu zait bai, neri ere.

**MARTA:** Bego. Laister jakinen dugu *(Aterat abiatzen da)*

**MARIA:** Gazetarien bat bada, Marta...

**MARTA:** Zaude trankil, haurra. Polizak eta gazetariak, maluruski, aspaldi huntan nik... muturretik ere ezagutzen bai ditut. *(Atea zabaltzen du puxino bat. Norbeitekin mintzo da. Eta berriz itzultzen.)* Gazte bat da, zuekin mintzatu nahi.

**ERRETORA:** Euskelduna?

**MARTA:** Itxuratik hola iduri du.

**MARIA:** Gazetaria ez bada...

**MARTA:** Bai zera! Ez-eta poliza, egin deskantsuan.

**MARIA:** Erraiozu sartzeko (*Marta-k atea zabaldu eta gazte bat sartuko*)

## II. AGERRALDIA

*Lehengoak eta gazte bat*

**GAZTE BAT:** (*Atetik*) Afaltzen ari zeratela jakin banuen, ez nintzazuten sartuko.

**ERRETORA:** Bai...! Gure egun hauetako bazkari eta afa-riak... Sar zaite sar, gazte.

**MARTA:** Bai, bai... Gure oraingo otoruntzen gaitik sar-tzen ahal tire aixe, jauna. Jarri zaite (*Ez da jar-tzen*)

**ERRETORA:** Euskal Herritik heldu berria, dudarik gabe?

**GAZTE BAT:** Ez jauna. Ni Paris-en bizi naiz.

**MARTA:** Paris-en? Eta guk ez ezagutu, euskelduna iza-nik?

**GAZTE BAT:** Nik bai ezagutzen zaituztet zuek, aspaldi-tik.

**ERRETORA:** Jarri zaite, jauna.



**GAZTE BAT:** Milesker. Xutik geldituko naiz.

**ERRETORA:** Gu ere... xutitu araziko gaituzu beraz. Zure izena jakiten ahal dugu?

**GAZTE BAT:** Nere izena? Martxial Arratibel.

**ERRETORA:** (*Harritua*) Martxial Arratibel?

**MARIA:** (*Jaikiz*) Martxial Arratibel erran duzu?

**ERRETORA:** (*Kexu*) Jarri zaite, Maria.

**GAZTE BAT:** Gure aita zenaren izen bera daramat nik ere. (*Pausa*)

**MARTA:** Zerbeit erran behar badiguzu, jauna, erran neri. Eneko-ren odoleko bakarra, hemen, ni bai nauzu. Beste hoiak, lagunak dire.

**ARLOTE:** (*Hilun*) Gertatuak... nigargarriak izan dire... baina... zer nauzu... aintzinekoak ere... jakin bai ditugu.

**GAZTE BAT:** Zergatik hitzegiten dautazu hola, gizon?

**ERRETORA:** Xo, Joxe Mari!

**MARIA:** Gaur bertan joatekoa ninduzun zure amaren ikusterat. Ez dakit nola hartuko ninduen baina... lagun hauek ezagutzen zuten nere asmoa.

**GAZTE BAT:** Bai eta nik ere.

**ARLOTE:** Zuk? Nundik ezagutuko Maria-ren asmoa? Lehen aldiz, oraitxet salatua bai digu! Nundik jakinen zenuen?

**GAZTE BAT:** Eneko-ren ezpainerarik, astian.

**ERRETORA:** Eneko-ren ezpainerarik?

**MARIA:** Eneko ikusi duzu, beraz?

**MARTA:** Zer erran du, zu ikustean?

**GAZTE BAT:** Deusik ez. Ez bai diot astirik eman. Ikusi ordu, biek besarkatu bai dugu elgar, nigarrez.

**ARLOTE:** Besarkatu? Nola besarkatu; burnien artetik?

**GAZTE BAT:** Burnirik ez zen gure artean. Haren gelarat eremana bai naute. Hantxet, oge berean jarri-rik, egon gera biak luzaz, gehienetan ixilik...

**ERRETORA:** Baina... bi ministru ikusiak ditut nik egun goizean, presondegi barnerat sartzeko baimena ezin eskuraturik. Nola utzi zaitue zu gelaraino igotzen?

**GAZTE BAT:** Ni... Eneko-ren abokata bai naiz.

**ARLOTE:** Zer ari zera zu? Guri irri egiten? Erran behar-  
rarak, erran. Bainan ez trufa!

**MARTA:** Xo, Joxe Mari! Holakoetan, zu ta ni bezelakoak hobe dugu egon ixilik.

**MARIA:** Eneko-ren abokata? Zu? Martxial Arratibel?

**ERRETORA:** Hilaren semea, hiltzalearen geritzaile?  
Beraz... odolaren kontra ariko zera zu?

**GAZTE BAT:** Ez jaun. Odolaren alde ariko naiz. Abertzale bai naiz ni ere. Eta gure aita zenaren odolaz

nahi bai diotet euskelduneri erakutsi: egiazko Herri bat ez dugula sekulan eginen, gure arteko odolkeri eta borrokakerieri ez ba diotegu gaina hartzen.

**ERRETORA:** Nik erraiten nuena: ez gerala lurrean bizi!  
*(Erretora, jaikirik, asiko zaigu harat-hunas ibilki. Arlote jaikiko da.)*

**ARLOTE:** Zuen artean mintzatu nahi ba zaizte, joanen naiz ni...

**MARIA:** Otoi! Zaude gurekin hemen, Joxe Mari!

**GAZTE BAT:** Zu zera, beraz, Joxe Mari?

**ARLOTE:** Zer? Ni ere ezagutzen nauzu?

**GAZTE BAT:** Eneko-k, zutaz mintzatzean, «aita» erraiten dizu beti, «aita»-k hau, «aita»-k bertzea...

**ARLOTE:** Eneko-ri berari entzun diozu... nigatik hola... «aita» erraiten?

**MARTA:** Joan zaite orai, Joxe Mari! Eta erraiguzu berriz: «zuen artean»!

**ARLOTE:** Ez, ez. Orai... hil artean... munduko gizonik dohatsuena izaiteko... erran dautazu aski.

**MARTA:** Barkatu, jauna... Zer hartuko duzu? Salda pittat edo...

**ERRETORA:** Otoi, Marta! Utzazu bere gisa zure salda hori!

**MARIA:** Ez duzu jarri nahiko ere, jauna?

**GAZTE BAT:** Orai... berdin (*Jartzen da*) Zortzi haurride gera gu, Arratibel-darrak. Ni zaharrena. Gure aita zena, pobre bezin langile sortua zen. Eta ameika buru-hauste ta izerdi ezaguturik, atera-tu ginduzen aintzina. Aita estimatuagorik ez da izango munduan. (*Pausa*) Zuen Eneko ez nuen arpegiz ezagutzen. Baina haren eginak eta erranak segitzen nituen nik ere, egun guziez. Euskalgoaren bidean, ene gidari eta aintzindarizat hura bai nuen nik ere hautatua. (*Pausa*) Lehengoan, zuen itxurak agertu zirelarik paperetan, orduantxet ezagutu zinduzten biak. Munduko gazetek lehen orrian euskera! Eta hori zueri esker! Harritu nintzen! Harritu! Errotu! Xoratu! Baina... ez zuen luze iraun nere zorionak. Handik laister entzun behar izan bai nuen, ezin sine-tsiz, aita hil zigutela! Geroxeago... eta hura bai ezin sinetsi... Eneko Bizkai zela gure aitaren hiltzailea! Burua galdurik, galdetu nioten ingurukoeri: Otoi! Erraiteko ametsetan ari nintzela! Baina... ez zen ametsa! Egia aitortzen dut: ene aitaren erailearentzat sortu zitzaidan, Barkatu erraitea... ordu arte sekulan ezagutu ez nuen

herra izigarri bat. Aintzinean izan banu... garbituko nuen! Baina gero... aitak Eneko-ri «espainola» erran ziola jakitean... Gernika-ri su, euskeldunek eman ziotela ere bai... golpez... aitaren ganako bilakatu zitzaidan... nahiago dut ez erran! «Eneko-ren plazan, pentsatzen nuen, ez zekiat nihaurrek ere zer egingen nian!» Eta ene burua bi esku hauen artean arrapaturik, gau osoa iragan nuen nigarrez eta oihuka! Goizeko argia gelan sartu zitzaidaneko, baketua nintzen. Eta aitaren gorputz aintzinean belaunikaturik, hari baimena galdetu-eta, hantxet deliberatu nuen: Gure aita zenaren hiltzailea, jujen aintzinean nihaurrek sustengatzea!

**ERRETORA:** Ene bizitza osoan, ez dut aditu gauza haundiagorik!

**MARIA:** Holakoetan, jauna, hitzik ederrena ixiltzea baita, hauxe bakarrik galdetuko nizuke: Badakizu nun eta noiz izanen den auzia?

**GAZTE BAT:** Laister eta Euskal-Herrian. Auzi guzia euskeraz iraganen da. Eneko-k ez paitu euskeraz baizik egingo. Eta nik ere ez.

**ERRETORA:** Maria! Bigar goizean ba noa ni berriz Gantzarain-erat. Itzultzen naiz artaldearengana,

ene gaixo ardi golpatua zure eskutan utzirik,  
Martxial. Baina joan baino lehen, nahi dizki-  
tzuet, haurrak, eskerrak eman. Gantzarain-go  
Erretorak Paris-en ikasia bai du, bigarko Euskal  
Herria zoin haundia izan litaken! A ta... ene pai-  
sola agertuko balitz, gure Kattalin-en muttikoa-  
rekin igortzen ahal dautazue Gantzarain-erat .  
(*Bere baitan, gogoketan*) Jesus! Nun utzi ote  
nuen nik ene paisola...!